


95

4 euro • 2005eko OTSAILA euskal heziketarako aldizkaria

# hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: MAITE SAENZ •  
WWW.WAPOA.NET • ARTISTA  
TXIKIEN AZTARNAK ZANGOZAKO  
IKASTOLAN • AMA HIZKUNTZA, ESKO-  
LAKO HIZKUNTZA • XIBERUTARREN HABIA





GAIA

Droga-menpekotasunen  
prebentzioa

# Adin guztietarako Mapak eta Atlasak zure eskura

## Eguneratuak



EUSKAL HERRIAK




Euskal Herritik Mundura  
Euskal Herritik Unibertsora



gaia

## DROGA-MENPEKOTASUNEN PREBENTZIOA

Drogen eta pertsonen arteko harranean menpekotasunik ez sortzea da helburuetako bat. Horretarako prebentzioa da egokiena. Horretan lan egiten duten adituen, irakasleen eta gazteen iritziak bildu ditugu.



elkarrizketa

## MAITE SAENZ

Ian talde zabal bat ari da Ikastolen Elkartearen eta Elkar argitaletxearen material kurrikularra egiten. Horren koordinatzailea da Maite.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## DROGA-MENPEKOTASUNEN PREBENTZIOA

18 elkarrizketa

MAITE SAENZ

26 ekarpena

[www.wapoa.net](http://www.wapoa.net)

Ipuin didaktikoak sarean

28 esperientzia

Artista txikien aztarnak Zangozako ikastolako atarian

29 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan  
Ama hizkuntza, eskolako hizkuntza eta  
eskolatzea

Ignasi Vila, Carina Siqués, Elisabet Serrat, Josep Maria Serrat  
eta Pilar Monreal

33 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!  
Xiberütarren habia

Sohütako Eperra ikastola


Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com); Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.com](mailto:hikhasi@hikhasi.com); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz  
Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Elizaguirre Erredakzio batzordea: Mikel Estorba, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Agalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko  
Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Keza Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM&Graf!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L.  
Azaleko irudia: Donostiako Lauizeta Bigarren Hezkuntzako ikastetxea (Hik Hasi). Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du. Data: 2005-II-07. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliu zaituzke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.  
hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



# eurei dagokie

matrikula itzazu PARTAIDEko ikastoletan



# editoriala otsaila

## Europarako Konstituzio Itunak ez ditu hizkuntz eskubideak jasotzen



Hizkuntza gutxiak hutsaren hurrengoa bailiran tratatzen dira Europan. Aniztasuna, errespetua eta borondatea bezalako hitzak erabat hustu dituzte herrietzat. Umungelditzen da esan eta izan leia.

Hilabete honetako kontua izango da Europarako Konstituzio Itunaren erreferenduma. Aldeko zein kontrako botoak eskatzen ari dira, aldeko zein kontrako arrazoi eta argudioetan oinarrituta.

Itunaren inguruan azterketa ekonomikoak, politikoak, sozialak, kulturalak eta linguistikoak egin dira. Horietako bat Hizkuntz Eskubideen Behatokiak egin duena da, hizkuntzaren ikuspegitik, jakina. Ituna goitik behera aztertu ondoren, ondorio garbi bat ateratu dute: ez dituela hizkuntz eskubideak jasotzen, hizkuntza ez da oinarritzko giza eskubidetzat hartzen.

Europako Batasunean 125 hizkuntzatik gora erabiltzen dira; 60 hizkuntz komunitate inguru daude; eta 21 hizkuntzari baino ez zaie aitortu konstituzioan hizkuntzaren izaera. Euskara 21 horietatik kanpo utzi dute. Estatuaren hizkuntzak dira Europan baliokoak, ez herri edo nazioen hizkuntzak.

Izan ere, Itun Konstituzionalaren arabera, estatuak dira Europako Batasuneko subjektuak, eta aniztasuna aipatzen duenean estatu horien aniztasunaz ari da. Ondorioz, estatu horien "borondatearen" baitan gelditzen da hizkuntza gutxituen defentsa. Hizkuntza guztiekiko errespetua ere aipatzen da itunean, baina horrek ez du inolako ondorio juridikorik.

Hizkuntza bat ofizialtzat hartzea edo ez hartzea ez da gauza bera, ondorio ugari ditu eguneroko bizitzan. Galdetu bestela lapurtarrei, nafarrei edo zuberotarrei. Edozein administraziotara joan eta ezin euskaraz aritu. Gauza bera gertatuko zaigu Europan ere: zuzendaritzako proiektuetan, herritarrei begirako dokumentazioan, web guneetan, Ministroen eta Estatu Buruen Kontseiluan, komisarioen prentsaurrekoetan... euskarak ez du lekurik izango. Ezingo diegu Batasuneko adminis-

trazioei, Arartekoari edota bestelako erakundeei zerbitzua euskaraz eskatu. Munduko beste hizkuntzen maila izango du euskarak.

Horrek gure hizkuntzaren normalizazioan eragina izango du, negatiboa, zoritxarrez. Eta hezkuntza esparruan ere antzemango da. Euskara hizkuntza ikaskuntzaren programa guztietatik kanpo geldituko da. Europako ikastetxeekin trukeak egiterakoan ere gaztelania eta frantsesa erabiltzera behartuta egongo gara. Orain arte *aniztasunean bildurik* leloari loturik bideratu diren ekimen ia guztiak (Sokrates, Leonardo...) estatuaren hizkuntza ofizialen sustapenerako izan dira. Beraz, hortik at geldituko da euskara.

Gure eremu txikian euskal irakuntzaren aldeko urratsak ematen jarraitu arren, inguruak ez digu batere launduko helburuetako bat lortzen: gazte euskaldunak ateratzea eskolatik.

# kronika

Ahalmen urriko 10 haurrek eskolan behar bezalako baldintzak izan ditzaten, 40.000 euro behar ditu Seaskako Integrazio Batzordeak. Izan ere, Frantziako Hezkuntza Ministerioak ez ditu ordaintzen behar bereziak dituzten haurrekin lan egiten duten hezitzaileak.

Frantziako hezkuntza sisteman AVS edo "eskolaren bizitzako laguntzaile" figura dago. Seaskak, ordea, duela 10 urtetik AVSaz gain hezitzaileak ere jartzen ditu haurri laguntzeko (Hego Euskal Herriko eredia jarraituz).

Hezitzaile horiek Seaskak ordaindu behar ditu. Hala azaltzen du Seaskako Integrazio Batzordeko idazkariak, Ladix Lanouguère Arrosagaraik: *"Frantses Hezkuntzak 20 urteko gibelamendua du ahalmen urriko haurren integrazioan. Guk beharren arabera lan egitea erabaki dugu, eta ez eskaintzen dituzten laguntzen arabera"*.

Dirua biltzeko eta gizartea sentsibilizatzeko kanpaina abian dute, *Eskola egun, gizartea bihar lelopean*. Otsailaren 12an bukatuko da kanpaina "Irratsei" izeneko irratisaioarekin. Aurtengo kanpainan 1.000 lagunek parte hartzea lortu nahi dute.



## Fisika, Kimika eta Geometriari ordu gehiago

EAEko hezkuntza sistema ebaluatu dute nazioarteko bi ikerketek (Pisa eta TIMMS neurketek). Eraitzen arabera, Geometriari, Fisikan eta Kimikan ateratzen dituzte bertako ikasleek nazioarteko batez bestekoak baino puntuazio baxuagoak. Zientziatako hiru arlo horiek hobetu asmoz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Anjeles Iztuetak neurri zehatzak hartuko dituela iragarri du: hiru ikasgaion ordu kopurua handitzea, berrikuntza programei arreta berezia eskaintzea eta irakasleen trebakuntza sakontzea dira iragarritako neurriak. Zer-nolako aldaketak egin erabaki baino lehen, administrazioak egingo curriculumak aztertuko omen ditu.

Pisa neurketa OCDE Ekonomia

Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak egiten du, DBH bukatzean duten ikasleetan oinarrituta. Lau arlo ebaluatzen ditu: irakurmena, ezagutza matematikoa, ezagutza zientifikoa eta buruketan ebazpena. Alor ia denetan, OCDEko herrialdeen batez bestekoan edo apur bat gainera dago EAEko hezkuntza sistema. Ezagutza zientifikoa dabil ahulena. Matematika alorrean, berriz, hutsunea Geometriari dagoela agertu du ikerketak. TIMMS nazioarteko ikerketak ere gabezia nagusiak Fisikan, Kimikan eta Geometriari kokatu ditu.

Indarguneen artean ekitatea da EAE erreferente bihurtzen duen ezagutza; alegia errendimendurik altuena eta baxuena lortzen duten ikasleentzako aldea txikia izatea. Pisaren arabera, OCDEko herrialdeen ekitate onena dauka EAEk, eta TIMMSen ebaluazioan munduko hirugarren lekuan dago, Quebec eta Tunisiaren ondoren.

Zientzia arloa indartzeko, administrazioak ikastordu gehiago eskaintzeko agertu duen asmoaren aurrean, ezadostasunik ere agertu du zenbaitek. Hala zioen Berria egunkarian Josu Sierak, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko arduradunak: *"Gure hezkuntza sistemak hizkuntzen aldeko apostu sendoa eginda dauka, eta hizkuntzei ezin zaizkie orduak kendu. Beste bideren batzuk bilatu behar ko dira, beraz"*.

Gure imaginario propioa osatzen ez baldin badugu, Erdi Aroa eta Lehen Aroa beste begi batzuekin ikusiko dugu, gureak ez diren begi batzuekin. Geure begiekin osaturiko Historia bat osatzea horregatik da hain garrantzitsua.

Anjel Lertxundi



## Euskal curriculumak eskolen ekarpenen bila

Euskal curriculumak azken urratsetan da eta prozesua udazkenerako bukatzeko konpromisoa hartu zuten berau diseinatzen ari diren hiru erakunde-etako ordezkariak. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakari Pedro Aranburuk, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteko lehendakari Juan Karlos Aretxabaletak eta Ezker abertzaleko hautetsien Udalbiltzako lehendakari Loren Arkotxak hitzarmena sinatu zuten Bilbon urtarrilaren 28an. Publikoki jakinarazi zuten, eztabaida prozesu parte-hartzaile bati hasiera emango diote. Horretarako, bakoitzak bere eskola sarean ahalik eta eztabaidarik zabalena emateko aukerak jarriko dituzte Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eta Sortzen-Ikasbatuaz Elkartek. Udalbiltzak, berriz, herritarren par-

te-hartzea bermatu beharko du.

Euskal curriculumak bost urratsetan eraikitzen ari dira 2003az geroztik. Lehen urratsa, oinarri filosofiko eta pedagogikoak biltzen dituen lan metodologikoa adostea izan zen. Bigarren urratsean, jakintzagaiak zehaztu zituzten, adituen ekarpenak bilduz. Hirugarren urratsean irakasle adituengana jo eta euren proposamen teknikoak jasotzen ari dira (lan hau aurten bukatzeko asmoa dute). Orain azken bi urratsak ematea falta da, beraz: hezkuntzan dihardutenei eta, oro har, herritar guztiei parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera ematea eta, bukatzeko, ekarpenekin aberastutako txostena onestea.

Orain arteko urratsak positiboki baloratu zituzten, *"ametsa zirudiena gauzatzen ari delako"*, eta euskal curriculumak osatzeak zer garrantzia duen azpimarratu zuten: *"Gure kultur ondarearen adierazpenik nabarmenena euskara da eta euskarazko irakaskuntza hedatzeko ahalegin handiakin dira. Gauza bat da, ordea, euskarazko hezkuntza eta, bestea, hezkuntza euskalduna. Euskalduntzeko, euskara ezagutzeaz gain, euskal gizartean sortu edota egokitu diren kultur adierazpen nabarmenenak bereganatu behar dira"*. Hezkuntza komunitate osoaren gogoeta eta ekarpenak ezinbestekoak direla nabarmendu zuten.

la 2.000 funtzionarioek soldata igoera eskatu zuten Baionan egindako manifestazioan.

Irakasleak ziren manifestari gehienak, nahiz eta tartean suhiltzaileak, ospitaleetako langileak, administrazioetako eta zerbitzu publikoetako beste zenbait langile ere izan. Urtarrilaren 20an aterata ziren Baionako kaleetara.

Frantziar estatuak funtzionarioen soldatak ez ditu kontsumo prezioen arabera igo; gainera, zerbitzu publikoak gutxitu ditu. Horixe zen pankartaren atzean bildutako sindikatuek (CFDT, CGT, UNSA, FO, FSU eta CFTC sindikatuek) salatzen zutena. *"Denak batera gure soldaten eta zerbitzu publikoaren alde"* zioen leloak.

Pankarta nagusiaren atzean ez zieten LAB sindikatuko ordezkariak lekuri egin, eta hogeit metro atzerago joan ziren LABekoak, *"kalitateko irakaskuntza"* aldarrikatzen.

Sistema publikoko gabeziak aipatu zituzten sindikatuek: ospitaleetan langile falta omen dute; segurtasun eza gero eta handiagoa omen da; dezentralizazioaren ondorioz miseriak lekuko instituzioetan nabari omen dira; eta Frantziako Gobernuak ez omen ditu negoziazioak hasi nahi.

Renaud Dutreilek, Funtzio Publikoko ministroak, halaxe erantzun du: *"Ez dut dirurik gordetzen alfonbraren azpian"*.

# Droga menpekotasunen prebentzioa







# Drogak eta gu: hasteko, informazioa

Hitz goxoak dauden bezalaxe, hitz gogorrak ere badaude, eta horietako bat da droga. Ahoskera zein esanahia, biak ditu gogorrak, indartsuak. Eta horri loturik, bakoitzari beste hitz sorta bat etortzen zaio burura: drogak, arriskua, beldurra, kontsumoa, ihesa, plazerak, debekua, gazteak, prebentziona, legaltasuna, lagunak, menpekotasuna, askatasuna, tabua, trapitxoa, iluntasuna... Eta horiek denak norberaren emozioei, bizipenei eta daukan informazioari lotuta daude. Horregatik, iritziak ere askotarikoak dira.

Gutxiago edo gehiago, denok ukitzen gaituen errealitatea da. Hurrengo orrialdeetan irakasleen, gazteen, gurasoen eta droga-menpekotasunen prebentzian lan egiten duten adituen iritziak bildu ditugu. Drogei baino garrantzia gehiago eman nahi izan diegu beraien esateko dituztenei, askoz ere erakitzaileagoa baita.

Zailena hitz egiten hastea da. Behin hasiz gero, ura bezala, errekan behera inolako trabarik gabe garatzen da berriketaldia. Mila arrazoi tarteko, kosta egiten da gai batzuetaz hitz egitea, baina hasierako bertigoa gainditu ondoren, barrenak askatzeak izugarritzko lasaitasuna ematen du.

Horixe gertatzen da drogak aipatzean ere. Batzuek, mingaina txulora sartu eta beste aldera begiratzen dute. Beste batzuek, errealitateari begiratu eta zezenari adarretatik heltzen diote. Azken horiek, inolako beldurrik gabe hitz egiten dute drogez, menpekotasunez edo prebentzioaz, eta gauzak argiago dituzte. Hasteko, pertsoneri drogei baino garrantzi gehiago ematea. Bigarrenik, informazioa edukitzea oso garrantzitsua dela. Hirugarrenik, kontsumitzen bada, arduraz egitea funtsezkoa dela. Eta azkenik, menpekotasuna saihesteko eta horri aurre egiteko, prebentziona dela tresnarik egokiena.

## Zer dira drogak?

Hasteko, informazioa funtsezkoa dela esan dugu. Drogak sustantzia naturalak edo artifizialak dira, eta gure gorputzean hainbat modutan sartuz gero, nerbio sisteman aldaketa fisikoak edota psikikoak sortzen dituzte, baita errealitatea hautemateko moduan ere.

Drogak kontsumitzeko hainbat modu daude: edan, irentsi, esnifatu, erre, txertatu...

Berez ez dira sustantzia txarrak, neutroak dira, baina erabilpena bai izan litekeela ona edo txarra. Kontsumoa desegokia baldin bada, berau ez kontrolatzera irits daiteke edonor. Kasu horietan, kontsumitzeari uzten zaionean urduritasuna, antsietatea edo hertsura, depresioa... sortzen dira. Ondorioz, droga hori kontsumitzeko beharra

sortzen da, hots, menpekotasuna.

Menpekotasuna fisikoa edo biologikoa, psikikoa edo funtzionala izan liteke.

Are gehiago, gaur egun menpekotasun hori patologia bihurtzen ari da. Beste modu batera esanda, bi aldetako menpekotasuna sortzen ari da. Batetik sustantzia konkretu baten kontsumoa ez delako egokia, eta bestetik alde zurretik beste gaixotasun mota bat dagoelako. Bi gauzak elkartzen direnean patologia arazoak sortzen dira. Esate baterako, gaur egungo kontsumitzaile berri asko ez dira alkoholiko hutsak, kokainomano hutsak edo heroinomano hutsak, baizik eta dena nahastuta kontsumitzen dute. Droga batzuk estimulatzaileak dira, beste batzuk depresiboak... eta horiek nahastuta buru osasun arazoak sortzen dira. Gero gehiago dira menpekotasunarekin batera paranoia edo buru nahasketak dituztenak. Ondorioz, arazoa ez da menpekotasuna, buru osasuna baizik. Eta esku-hartzea askoz ere konplexuagoa da.



# G

# Drogak hartzeko moduak gaur egun

Gizartea aldatzen den heinean, ohi-turak ere aldatu egiten dira, eta hori gertatzen da droga kontsumoaren kasuan ere. Kontsumoa gero eta gehiago zabaltzen ari da. Baina, halere, jende gehiagok kontsumitzeak ez du esan nahi droga gehiago kontsumitzen denik.

Kontsumitzen hasteko adina jaitxi egin da, hots, kontsumo esperimentalak hasteko adina jaitxi egin da, gero eta gazteago hasten dira drogak probatzen. Horrekin batera, arriskuaren pertzepzioa gero eta txikiagoa da. Kontsumo asko arrisku gutxiak edo arrisku gabeak direla uste dute askok. Norberak egiten duen kontsumoa eta hartzen dituen drogak justifikatzen ditu, eta aldi berean, besteak kritikatu.

Oro har, drogak kontsumitzeko kultura aldatu egin dela esan liteke. Kontsumo intentsiboak eta konpultsiboak dira nagusi orain. Dena azkarrago doan mundu honetan, drogen kontsumoa ere bai. Gizarte eta kultura bakoitzak betidanik izan ditu drogen kontsumoa, ekoizpena eta banaketa erregulatzeke modu batzuk. Tokian tokiko kulturak droga kontsumoak mugatu egiten ditu eta hartzeko moduen inguruan agindu batzuk finkatzen ditu, normalean ontzat hartu izan direnak. Hori hankaz gora jartzen ari da gaur egun. Alkoholaren kasuan, esate baterako, mediterranean kontsumoa zen nagusi lehen, eta orain anglosaxoi erara kontsumitzen da: denbora gutxian kantitate asko. Gauza bera gertatzen da tabakoarekin eta haxixarekin ere. Kokainaren kasua ere kurioa da. Dentistek betidanik erabili izan dute analgesiko bezala anestesia egiteko. Hego Amerikako kulturaren ere betidanik erabili dute. Baina mendebaldean beste erabilpen bat eman zaio. Gaur egun, lanean dabilzanek ere hartzen dute, etengabe lanean jarraitzeko eta gehiago produzitzeko. Azkenaldian erabilpen farmazeutikoa-

ren antzekoa den beste kontsumo mota bat ematen ari zaio: biharamuna edo bestondoa gutxitzeko hartzen da.

Hori gutxi balitz, droga mota bakarra ezezik, gehiago nahasten dira: edari alkoholdunak, estimulatzaileak diren drogak (tabakoa, speed-a, kokaina...), eratorri kannabikoak, diseinu drogak... hitz batean esateko, polikontsumoa.

## Hori dena nondik? Zergatik?

Gertatu diren aldaketak eta ohitura berriak egungo gizarte ereduari lotuta daude.

Indibidualismoan, kontsumismoan, lehiakortasunean, hedonismoan, norberarena besteengan delegatzean, elkartasun ezean... oinarritutako balioak, jarrerak eta jokabideak nagusi bilakatu ari dira. Erreferentzia ereduak falta dira eta sozializazio egituretan komunikatzeko, erantzukizunetan hezteko eta hezigarriak diren arauak eta mugak ezartzeko zailtasunak daudela begi-bistakoa da.

Ezin aipatu gabe utzi debekuaren politika ere. Jakina da drogek eragin zuzen dutela: alkohola gehiegi edanez



gero, mozkortu egiten da; tabakoa egunero errez gero, nikotinaren menpekotasuna sortzen da... Debekuaren politikaren ondorioz, ordea, zeharkako ondorioak sortzen dira. Adibidez, haxixa kalitate txarrekoa baldin bada, intoxikazio arriskua dago; kokaina nahastua edo heroína aizundua baldin badaude, gairidosiagatik edo aizuntzeagatik hil daiteke. Eta hori dena debekuaren politikaren ondorio da.

Horren aurrean normalizazioa eta prebentzioa bultzatzen dute hainbat erakundek. Zentzu horretan, drogei soilik ez zaie jarri behar arreta, baita pertsonari eta inguruneari ere, hirurak erlazionatuta daude-eta.

## 15-29 urteko gazteen artean legezko eta legez kanpoko drogen kontsumo maila

Sustantzia mota	Kontsumitzen hasitakoak	Ohiko kontsumitzaileak
Tabakoa	% 58,7	% 38,6
Alkohola	% 91,8	% 71,7
Kannabisa	% 55,1	% 29,6
Anfetaminak	% 15,3	% 7
Kokaina	% 11,2	% 4,4
Estasis-LSD	% 6,8	% 1,6
Droga sintetikoak	% 8,2	

Iturria: *Gazteak 2001* inkesta. Eusko Jaurlaritzako Droga-menpekotasun idazkaritza, 2000.



## Prebentzioa gazte, guraso eta irakasleekin

Prebentzian lan egiten duten hainbat erakunde daude Euskal Herrian, eta horietako bat da Askagintza. Gazteekin, gurasoekin eta ikastetxeekin aritzen dira. 15 urte daramatzate zeregin honetan, eta 100 ikastetxe ingurutatik pasa dira. Horrez gain, topaketak antolatzen dituzte, bai gazteenak eta bai gurasoenak, eta aurten irakasleentzat ere prestatu dute.

### Gazte topaketak

Askagintzakoek argi daukate gazteei garrantzi gehiago eman behar zaie, beraiek baitira protagonistak. Beraien bizitzaren subjektuak dira eta beraiei drogei baino garrantzi gehiago eman behar zaie. *“Esku-hartzerik txikiena, arreta handienarekin”*, hori da Askagintzako leloa.

Filosofia horrekin, hainbat herritan informazio guneak antolatzen dituzte, eta Euskal Herri mailan gazte topaketa nazionala egiten dute, elkarren berri jakiteko.

Horrela, drogei buruz hitz egiteko espazio bat eskaintzen zaie gazteei, euren zalantzak argitzeko, hausnartzeko, kezkek agertzeko... Leire Zumeta eta Txus Congil Askagintzako kideek diotenez, *“topaketak oso emankorrak izaten dira. Gazteek ideiak dauzkate, proposamenak dauzkate, eta hausnarketa oso-oso politak egiten dituzte. Aurreiritzirik eta epairik gabe entzuten zaie la konturatzen direnean, ireki egiten dira eta zoragarria da. Inoiz baino gazteria prestatuagoa eta osasuntsuagoa daukagu. Gertatzen dena da emozionalki oso ahulak direla, eta babesik gabe garatu behar dituztela euren gai-*

*tasunak. Horregatik, guk babes hori eskaini nahi diegu”.*

### Gurasoen topaketak

Gurasoak desorientatuta daude. Leirek dioenez, *“eredu autoritarioa bizi izan zutenek, ez dute gauza bera egin nahi, eta beste muturrera joaten dira. Gaindituta eta beldurtuta daude”*. Alkohola eta tabakoa ezagutzen dituzte, baina pilulak eta beste droga berriak ez, eta horrek beldurra ematen die. Egoera horretan, gehien estimatzen dutena lasaitzea eta entzutea da.

Askagintzak gurasoei bi zerbitzu eskaintzen dizkie. Batetik tailer iraunkorrak ikasturtean zehar. Zortzi saio inguru izaten dira eta gurasoek planteatzen dituzten gaien inguruan hitz egiten da. Bestetik saio solteak egiten dituzte, eta eskema hau jarraitzen dute: 1) zertaz ari gara hitz egiten; 2) non daude arazoak eta beldurrak guraso gisa (ez dakite zer kontsumitzen duten, ez dakite zer ondorio dituzten, ez dute kontrolatzen...); 3) beldurrak objektibizatu; eta 4) guraso bezala zer egin dezaketen aztertu, informazioa jaso, esku-hartze egokia zein den ikusi, komunikazioa landu, heziketa alternatibak bilatu...

Datorren ikasturtean gurasoentzako zentro bat osatu nahi dute Askagintzakoek, informazioa eta aholkularitza emateko. Eta aurten gurasoen II. topaketak egingo dira.

### Ikastetxeak

Eskola eremuan osasun heziketa eta droga-menpekotasunen prebentziorako programa bat daukate: **“Drogak larrugorrian”**. Berau ezartzeko

baldintza batzuk jartzen dituzte: eskola komunitate osoak parte hartzea, zentroan lan hori erraztuko eta koordinatuko duen arduradun bat egotea (orientatzailea, kasu), eta klaustroa, gurasoak eta ikasleak prest egotea.

Programa ikastetxearen ezaugarrietara egokitzen da, eta horren arabera ekintza batzuk edo beste batzuk egiten dituzte: gurasoei hitzaldiak eman, irakasleei formazioa eta ikasleei ere saioak.

Irakasleen formazioari dagokionez, beraien funtzioa zein den argi zehazten saiatzen dira. *“Askotan irakasleei dena eskatzen zaie gaur egun, beraiek soluzionatu behar dute dena, eta hori ez da horrela. Beren funtzioak argi definitzen eta zehazten saiatzen gara”* dio Txusek. *“Irakasleen esparrua eduki akademikoak, balioen heziketa eta zentroko elkarbizitza dira, eta ez hori baino gehiago. Gure formazioan ongi mugatzen ditugu zein diren irakasleen funtzioak eta zailtasunetan laguntza eskaintzen diegu tresnak emanez. Eta beti hor egoten gara. Guretzat oso garrantzitsua da gu hor gaudela sentitzea, errekurtsio iraunkorra garela ikustea, eta ez puntualki egon eta joaten garenak”*.

**“Drogak larrugorrian. Osasuna heziketan” programaren aurkezpena**  
Hezitzaileentzat, irakasleentzat, orientatzaileentzat...

**Hernanin, apirilaren 16an**  
**Biteri kultur etxean**  
**11:00-13:30**

# Belen Mujika: “Badakigu kontsumitu egingo dutela; beraz, arduraz kontsumi dezaten lortu behar dugu”

Donostiako Lauaizeta Bigarren Hezkuntzako ikastetxean “**Drogak larrugorrian**” izeneko proiektua lantzen dute Askagintzaren laguntzarekin. Duela hiru urte hasi ziren programa horrekin, baina orain dela 6-7 urte hasi ziren droga-menpekotasunen prebentzioa lantzen, ikastetxea ireki zen une beretik.

Donostian DBH independentea duen eskola bakarra da, hau da, ez Lehen Hezkuntzarik eta ez Batxilergorik ez duena. Institutu bat izateko, zentro txikia dela esan liteke: 226 ikasle eta 30 irakasle. Txikitasun horren abantailak aprobetxatzen jakin dute; alde batetik, koordinaziorako aukera handia ematen duelako, eta bestetik, ikasle eta irakasleen arteko hurbiltasuna lortu dutelako. Ikasleentzat gehitxo, agian, komunera joan baino lehen irakasleek bai baitakite hara joango direla. Kontrolarekin batera, ordea, babesa ere sentitzen dute, eta nerabeek biak behar dituzte.

Belen Mujika ikastetxeko orientatzaileak gerturatu gaitu eskola barruko girora eta droga-menpekotasunen prebentzioan egiten ari diren lanera.

**Zergatik hasi zineten gai hori lantzen?**

Hasieran gurasoekin hasi ginen, gai honen inguruko hitzaldiak eskatzen zizuztelako. Gero ikasleekin ere lantzen hasi ginen. Beti komentatzen genuen hori ez zela nahikoa, eskola komunitate osoak hartu behar zuela parte, eta horregatik jo genuen Askagintzakoengana.

**Zergatik sentitzen dute gurasoek gai hori lantzeko beharra?**

Beldurtuta eta desorientatuta daudelako. Sekulako beldurra daukate drogen aurrean. Beti komentatzen dute goizeko 1:00ak arte egoten direla seme-alabak Bretxa ondoan, eta handik pasa eta ikusten dena ikusita... “Nola lortuko



Belen Mujika Lauaizetako orientatzailea Askagintzako Leire Zumeta eta Txus Congilekin.

dugu informatuta egotea kasurik egiten ez badigute?” galdetzen dute. Azken boladan kezka handia dute kanutoekin, pilulekin... Kurioa da, halere, tabakoarekin ez kezkatzea. Eta... eskolatik atera eta egiten duten lehenengo gauza zigarroa piztea izaten da.

Bestalde, gure ikasleak hona etorri aurretik Aitor ikastolan eta Intxaurren ikastolan ibilitakoak dira, eta han gurasoek asko parte hartzen zuten ikastolan. Beraz, hemen ere joera hori mantentzen dute eta ez dira beldur horrelako gaiak planteatzeko.

**Nola sentitu izan zarete irakasleak gai hau landu behar duzuela jakitean?**

Une honetan izugarrizko erantzukizuna uzten da irakasleen eta eskolaren gain, eta gainera, inolako errekonozimendu sozialik gabe. Guk ezin dugu 4:30etik aurrera gertatzen dena kontrolatu. Askotan komentatzen dugu gurasoekin heziketa sexuala eta osasun heziketa landuko dugula eskolan, baina ezin dugu bermatu haurdunaldiak egongo ez direnik edo arduraz kontsumo dutenik. Praktika ez da eskolan egiten.

Gurasoak lasaitu egiten dira guk gaia landuko dugula esaten diegunean. Baina horrek ez du esan nahi beraien ahaztu egiten behar dutenik. Horre-

gatik, oso garrantzitsua da gurasoek zehatz-mehatz jakitea ikasleekin zer lantzen dugun gai horren inguruan, beraien ere ikus dezaten non dagoen beraien atala edo funtzioa.

**Irakasleok beldurrik sentitzen al duzue?**

Dena gure gain gelditzen bada, bai. Zeren gu ez baikara adituak. Horregatik, ondo definitu behar da bakoitzaren funtzioa. Irakasleok ez ditugu sustantziak landu behar, ez dugu drogei buruz dena jakin behar; gainera, kasu batzuetan ikasleek gu baino informazio gehiago edukitzen dute. Eskatzen zaiguna da ikasleei jarraipena egitea eta adituei informazioa ematea ikasleei buruz: talde presioei buruz, aisialdiari buruz...

**Orduan, zer da zehazki irakasleok egiten duzuen?**

Hasieran Askagintzakoek gurasoei eta klastro osoari ematen diote informazioa. Gero, tutore bakoitzarekin eta orientatzailearekin mintegiak egiten dituzte gela bakoitza hobeto ezagutzeko, ikasleekin erabiltzen duten materiala erakusteko, saioak nola egiten dituzten azaltzeko...

Ondoren, tutoreak Askagintzako adituek prestatutako galdetegi bat pasatzen die ikasleei, anonimoa eta konfidentziala. Galde sorta horretan dauz-

katen zalantzak, ezagutzen dutena, ezagutu nahi dutena... azaltzen dute. Gero horren arabera, gela bakoitzeko hutsuneak eta beharrak ikusita prestatzen dituzte ikasleekin egingo dituzten saioak.

Baina aurretik, tutoreak ikasleekin gaia lantzen du Askagintzakoek utzitako materialarekin. Horrela, ikasleek galderak prestatzen dituzte gero adituei planteatzeko. Aurten, unitate didaktiko batzuk landuko dituzte irakasleek ikasleekin.

Askagintzakoak beti hor egoten dira edozer gauza behar badugu ere. Eta aldamenean daudela jakiteak, asko lasaitzen gaitu.

**Zein adin da egokiena prebentzioa lantzen hasteko?**

Garrantzitsuena ikasleen ezaugarrietara egokitzea da. Lehen Hezkuntzan landu daiteke, baina elikadurari lotuta, adin batzuetan ez baitu zentzurik alkoholaz hitz egiteak oraindik ez direlako edaten hasi edo ez dutelako horretarako interesik. Ikasleen interesak aldatu egiten dira, eta hortik abiatzea da garrantzitsua.

**Zein da ikasleei helarazi nahi diezuen mezua?**

Gure mezua ez da ez kontsumitzea. Badakigu kontsumitu egingo dutela; beraz, kontsumi dezatela arduraz.

Gazteak dira eta oraindik ezin diegu eskatu dena kontrolatzeko erantzukizuna, eta horretarako gaude gu, babes-teko eta laguntzeko, jarraipena egiteko.

Kontsumitzen hasten diren adina atzeratzea lortzen badugu, ongi. Lehenbiziko kontsumoak hain konpulsiboak ez izatea lortzen badugu, hobeto. Eguneroko kontsumoa arduratsua baldin bada, ongi. Hori da egin dezakeguna.

**Zer lortu duzue urteotako lanarekin?**

Alde batetik, programa hau eskolaren barruan sartzea. Inork ez du zalantzan jartzen lantzen jarraitu behar dugunik, barneratuta daukagu.

Beste aldetik, gazteei gai honetaz hitz egiteko aukera ematea, desmitifikatzea eta beraien artean horretaz hitz egiteko gai izatea eta helduಂಗana gerturatzea.

## Gu ere, gazteok, kezkatzen gara

Bai Askagintzakoek, bai irakasleek, gazteei hitza eman behar zaiela azpimarratzen dute. Drogei baino garrantzi gehiago eman behar zaie gazteei, beraien baitira protagonista. *“Esku-hartzerik txikiena, arreta handienarekin”*, da leloa.

DBHko 1. mailan erraz hitz egiten omen dute. 2. mailan gero eta zailagoa izan ei da euren iritzia jasotzea. 3. mailan mutu, krisia, ez dira mintzatzen ez gurasoekin, ez irakasleekin. Eta 4. mailan berriz lasai hitz egiten hasten dira.

Lauazetako 4. DBHkoak hitzunak dira, bai. Inolako trabarik gabe hitz egiten dute drogen kontsumoaz eta euren kezkez. Ongi iruditzen zaie eskolan drogaren gaia lantzea, eta garrantzi handia ematen diote informazioa jasotzeari, ez baitaukate. Oso gustura entzuten dituzte adituen hitzaldiak. Beraiek liburuak hartu eta lantzea baino nahiago dute entzutea. Iaz marihuanari buruzko liburu bat irakurri zuten denen artean. Talde bakoitzak atal bat irakurri zuen eta hari buruzko laburpena egin zuten ondoren. Laburpena egitea, ordea, astuna iruditu zitzaion. Horrelako gaiak modu ludikoagoan, erakargarriagoan eta praktikoagoan landu beharko lirakeela uste dute.

Adituek anekdotak kontatzen omen dituzte euren saioetan, eta hori oso gustuko dute. Gainera, badakite ikastetxe askotan ibiltzen direla, eta interesgarritzat jotzen dute. Edozer gauza galdetzen diete beraie, gurasoei eta irakasleei ez bezala. Haiek konfiantza

gehiago ematen diete.

Gelan liburuak erabiltzen dituzte informazioa jasotzeko, baina hori baino nahiago omen lukete drogak gelara ekarri eta zuzenean ikustea. Alkohola, tabakoa eta haxixa ezagutzen dituzte, eta beti horietaz hitz egiten omen da drogak aipatzean. Horiek utzi eta beste drogen inguruan duten jakin-mina aseptu nahi dute.

Drogak probatzeko adinean daude, eta beraien artean desberdintasunak daude. Batzuk inoiz ez dira mozko-tu, eta beste batzuk bai. Batzuk nahiago dute ez probatu, badaezpada, agian gustatu egingo zaielako. Gurasoen ohiko “txapa” entzuteaz nazkatuta daude, baina aldi berean, badakite kezka daukatelako esaten dietela kontrolatzeko eta edaten badute ere ez pasatzeko.

15-16 urteko gazte hauen iritzi, orain lehenago hasten dira drogak kontsumitzen, eta horrek kezkatu egiten ditu.



# Ikasleak eta drogak irakasleen begietatik. Zer iritzi dute irakasleek?

Drogamenpekotasunen Deustuko Institutuak izenburu hori daraman azterketa bat argitaratu zuen iazko uztai-lean. Maria Teresa Laespadak koordinaturik, ikerketa talde bat aritu zen bere aldamenean: Elisabete Arostegik, Araceli Fernandezek eta Nieves Garcia del Moralek osatua.

Ikerketa lan horretan DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako 517 tutorerengana hurbildu ziren drogamenpekotasunaren aurrean ikastetxetan egiten den prebentzioari buruzko euren iritzia jakin asmoz.

Gai honen inguruan ikastetxea egoera estrategiko batean aurkitzen da. Alde batetik, gazte asko biltzen den lekua delako, eta talde hori delako drogamenpekotasunean erortzeko arriskua duenetako bat. Beste aldetik, gazteak bere osotasunean eta osasuntsu garatzeko aukerak eman ditzakeen erakunde da, horretarako giza baliabideak badituelako eta antolatua dagoelako. Zentzu horretan, eskola barruan gertatzen den sustantzien kontsumoaren aurrean, prebentzio neurriak hartzea lehenetsuzkoa izan behar du ikerketa honen egileen ustez.

Eskola, ordea, ez da instituzio soil bat, irakasleak daude bertan eta horien jokabideak eta zereginak baldintzatzen dute eskolaren funtzionamendua edo eguneroko lana. Gauza jakina da irakaslea ez dela edukien igorle hutsa, baizik eta hezitzailea, eta gazteen heziketa integratzen bere erantzukizuna duela. Horien artean dago osasunerako heziketa, eta hor kokatzen da droga menpekotasunen prebentzioa. Gainera, gaur egun eskolak drogen kontsumoaren prebentzioan duen funtzioa mundu mailan errekonozitua dago, gazteengana jarraipen batekin gerturatzeko berraztertzen duelako. Ondorioz, irakasleak begirada guztien jomugan daude.

## Ikastetxeen ikuspegia

Euskal Herriko hainbat ikastetxetan droga-menpekotasunen prebentzioarako programak ezarrita dauzkate, batzuek euren kabuz eta beste batzuek prebentzio programak bideratzen dituzten erakunde bitartez. Beste zenbait zentrotan ikasturtean zehar ekintza puntualak egiten dituzte, batzuetan irakasleek beraiek gidatuta eta beste batzuetan kanpoko norbait etorrita. Kasu bakanak badira ere, zenbaitetan ikastetxeek beraiek egiten dute euren programa propioa.

## Irakasleen jarrerak, sinesmenak, espektatibak edo esperientziak drogen kontsumoaren aurrean

Irakasleek batez ere ohikoak diren sustantziak ezagutzen dituzte: tabakoa eta alkohola lehendabizi, kannabisa ondoren, eta hirugarrenik sustantzia estimulatuak, bereziki anfetaminak eta speed-a.

Beren ezagutza handiagoa edo txikiagoa izan, ikasleei informatzeko eta prebenitzeko trebeagoak izango dira edo ez. Edonola ere, aipatu sustantziak ez dituzte oso arriskutsutzat jotzen irakasleek, eta beraz, baliteke beren prebentzio lana ez izatea oso alarmista.

Irakasleak jakitun dira ikasleek tabakoa, alkohola eta kannabisa kontsumitzen dituztela. Euren iritziz, alkohola

eta tabakoa ohikoak dira Bigarren Hezikuntzako ikasleen artean, eta zenbait lekutan Lehen Hezikuntzako azken bi urteetan ere bai. Badakite gazteek asteburuetan asko edaten dutela, eta ikasketak bidaietan jabetzen dira horretaz. Zeren bestela, alkohola asteburuetan kontsumitzen denez, eskolako egunerokotasunean ez du eraginik.

Ez da gauza bera gertatzen haxixarekin. Eskola orduetan sartu den sustantzia da, eta horrek kezkatu eta beldurtu egiten ditu irakasleak. Aisialdian kontsumituzetik eskola orduetan eta astegunetan kontsumitzera pasatzeak kezkatu egiten ditu. Irakasle askok esaten du gelan haxixaren eraginpean egoten diren ikasleak edukitzen dituztela, nahiz eta sustantzia eskolan ez kontsumitu. Eta euren iritziz, ikasleen errendimenduan eta portaeran eragiten du.

Bestalde, anfetaminak bezalako estimulatuak ez dituztela kontsumitzen uste dute, nahiz eta Droga-menpekotasunen Euskal Azterguneak esan gero eta gazteagoak direla sustantzia horiek kontsumitzen dituztenak.

Irakasleen iritziz, lagunen eta berdinaren arteko presioak dira tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa hastera eta mantentzera bultzatzen dutenak. Bestalde, kannabisa kontsumitzen dutenak esperimintatzeko eta norberaren nortasuna bilatzeko egiten dutela uste





# G A I A

## Droga-menpekotasunen prebentzioa

# G

dute irakasleek, eta beraz, ez dute negatibotzat hartzen esperientzia hori. Beste zenbait kontsumoren inguruan, berriz, jarrera negatiboa dute. Esate baterako, droga ilegalen kontsumitzaileak “arauetatik desbideratutako pertsonak” dira irakasleentzat.

Drogak kontsumitzen dituzten ikasleek zer sentimendu sorrazten dizkien galdetu ondoren, gehienek kezka eta errukia sentitzen dutela adierazten dute.

Ikasleei laguntzeko garaian, galdeketa irakasleen % 32,3k Prebentzio Zerbitzuak ezagutzen dituela adierazi zuen; gainontzekoek ez. Ezagutzen dutenetatik % 69,4k erabilgarria dela deritzo. Beraz, beharrezkoa da zerbitzu horiek ezagutaraztea.

### **Zer iritzi dute irakasleek ikasleen droga kontsumoaren inguruan?**

Hezitzaileen gehiengo kontziente da prebentzio lana egin behar dela; ikasleak hezi egin behar direla droga eta osasun arloan. Baina horretarako prestakuntza behar dute, eta hori, eskola orduz kanpo egiten dute normalean. Ondorioz, eguneroko lanari gehitzen zaion beste zama bat bihurtzen da.

Egungo gizarteko arazo asko eskolan bideratu behar direla esaten da, eta irakasleak gogaituta daude. Kanpoko laguntza gehiago eskatzen dute.

Ikasleek drogak kontsumitzen dituztela ikusten dutenean, irakasle gehienek neurri eta zigor zorrotzak jartzen dituzte, nahiz eta jakin eskolaz kanpo gertatzen dena ezin dutela kontrolatu.

Zigorrek bokazio pedagogikoa du, eta gurasoei jakinarazi ohi zaie. Horien erreakzioa desberdina izan liteke: batzuek ez dute onartzen eta ukatu egiten

dute euren semeak edo alabak drogak kontsumitzen dituenik; beste batzuk onartu egiten dute eta eskolatik jasotzen duten informazioa eta laguntza eskertu egiten dute. Hala ere, gurasoek gutxi kolaboratzen dutela kezkatzen dira irakasleak.

### **Zein da irakasleen jarrera eskolako prebentzio programetan inplikatzaren inguruan?**

Irakasle gehienek onartzen dute euren lana ez dena edukiak ematea soilik, baina horrek ez du esan nahi gustura daudenik gizarteak bere gain jartzen dituen zeregin guztietan.

Prebentzio programen aurrean irakasleek jarrera askotarikoak dituzte, denek ez baitute berdin pentsatzen beste behar duten rolaz. 38ko puntuaketa kontuan hartuta, jarrera hauek defen datzen dira: % 29,29k prebentzioaren profesionalizazioa eskolan; % 6, 31k irakaslearen inplikazioa prebentzian; % 4,6k eszeptizismoa prebentzioaren aurrean; % 4,38k lankidetzaren premisa gisa eginkizun soziohezitzailean; % 3,9k prebentzioaren interesa duten irakasleentzat bakarrik; % 3,24k prebentzioa eskolako eguneroko dinamika gisa; % 3,07k prebentzioa gainahalegin gisa.

### **Nolakoa da irakasleen prestakuntza?**

Ikastetxeetako tutoreen % 60,7k ez du inolako formaziorik jaso droga-menpekotasunen inguruan, eta % 40k nolabaiteko prestakuntza jaso du, baina oso puntuala izan da. Ondorioz, prestakuntza jaso ez dutenez, ez dira inolako programa aurrera eramaten hasten. Hori bai, ordu kopuru finko batenko formazio antolatua jaso dutenek oso positiboa izan dela aitortzen dute.

### **Zer pentsatzen dute irakasleek alkoholaren eta beste drogen eskolako prebentzioaz? Nork arduratu behar du prebentzioaz eskolan?**

Bi iritzi nagusitzen dira galdera honen inguruan: batzuk irakasleen lana dela diote, eta beste batzuek kanpoko adituen esku utzi behar dela. Dena dela, bi gauzak ere egin litezke, irakasleak eta kanpoko adituak elkarlanean aritu, alegia.

Orokorrean, Lanbide Heziketako irakasleak dira adituen esku uztearen alde daudenak. Kontuan hartu behar da adin horietan izaten dela gatazkatsuen drogen kontsumoa. Inolako formaziorik ez duten irakasleak ere adituen esku-hartzearen alde daude. Bestalde, formazioa jaso duten irakasleak euren burua nahiko seguru eta prestatuta ikusten dute gal hori lantzeko.

Prebentzioa erlijioiko edo etikako irakaslearen esku uztearen aurka agertzen dira tutore gehienak.

Tutoreek ez dute nahi prebentzio lanaren gidaritzia edo lidergoa beren gain hartzerik.

**Irakasleek eskola prebentzioari baino garrantzi gehiago ematen diote balioetan hezteari, kontzientzia sozialari eta informazioa gehitzeari.**

## **Zein estrategia iruditzen zaizkie baliagarriak eta beharrezkoak?**

Prebentzioa ez da informazioarekin bukatzen. Irakasleek uste dute drogen arriskuei eta ondorioei buruzko hitzaldiak ez direla nahikoa ikasleen eta gizartearen ohiturak aldatzeko. Eskolako prebentzioa zehar lerroen bidez landu behar dela pentsatzen dute. Zailena, noski, hori praktikan jartzea da, irakasleen arteko koordinazioa, prestakuntza, denbora... eskatzen baititu. Gainera, ez da interes handirik ikusten prebentzio programa proiektu kurrikularrean sartzeko.

## **Zein neurri ematen die garrantzia irakasleek?**

- Prebentzio lana egiteko beharrezkoak dituzten tresnak edukitzeari.
- Adituen presentziari.
- Balioetan hezteari eta erantzukizunez jokatzeko irakasteari. Erantzule izaten, norberak bere kabuz erabakitzen eta beren ekintzen ondorioak neurtzen erakutsi behar zaie, hots, pertsona bezala garatzen.
- Kontzientziazio sozialari, bai familien eta bai hezitzaileen aldetik.
- Ohitura onak promozionatzeari.
- Drogen inguruko informazio gehiago emateari.

## **Gelan lantzen al da alkoholaren eta beste drogen kontsumoaren gaia?**

Inkesta erantzun dutenen hiru laurdenak baietz dio, prebentzioa lantzen dutela. Horietako % 78k noizean behin lantzen du eta % 22k sistematikoki. Azken horien artean gehienak DBHko tutoreak, psikologoak, esperientzia duten irakasleak eta, batez ere, prestakuntza dutenak dira.

## **Nola lantzen dute prebentzioa? Zein metodologia erabiltzen dute?**

% 49k beren kabuz egiten du, % 46k zentzoko programa batean oinarrituta, eta % 15ak kanpoko adituekin.

Prebentzioaren muina formazio bidea da, balioetan hezteak, eta ezikasleak drogen arriskuarekin ikaratzeko.

## **Zein emaitza ematen dituzte prebentzio esku-hartzeak?**

Tutoreen % 57 zuhur agertzen da, ez positibo eta ez negatibo; % 40k positibotzat jotzen du, eta % 3k negatibotzat.

Edonola ere, irakasleen hiru laurdena prebentzioa lantzen jarraitzeko prest agertzen da.

## **Zein dira ondorio nagusiak?**

- Irakasleen formazioa. Bai gurasoak eta bai agintari politikoak kontziente baldin badira gazteen droga kontsumoaren arazoari heldu egin behar zaio, agian irakasle batzuk liberatu egin beharko lirakeke prestakuntza jaso ahal

izateko. Horrela, adituen beharrik gabe, ikastetxean bertan egongo lirakeke adituak. Horrek ez du esan nahi adituen beharrik egongo ez litzatekeenik, baizik eta gaiari zor zaion seriotasuna emango litzaiokeela.

- Beharrezkoa da irakasleek prestakuntza egokia jasotzea beren lana egiteko. Inori ez zaio burutik pasatzen Heziketa Fisikoko irakasleak Matematika-ko eskolak eman ditzakeenik prestatu gabe. Gauza bera esan liteke tutoreaz: ezin da pentsatu arazo guztiak berak soluzionatu behar dituenik, diziplina faltatik hasi eta drogen kontsumora arte.

- Drogen kontsumoa saihesteko zein neurri hartuko litzuketen galdetuta, eskolako prebentzioa bosgarren postuan jartzen dute irakasleek. Horri baino garrantzi gehiago ematen diote balioetan hezteari, kontzientzia sozialari, ohitura onak bultzatzeari edo drogei buruzko informazioa gehitzeari. Nahiko etsigarria da irakasleek beraiek hain garrantzi gutxi ematea eskolako prebentzioari, baina horren arrazoia prestakuntza falta izan liteke. Irakasleak ez daude oso gustura prebentzio lanei ematen dituzten emaitzekin, nahiz eta jarraitzeko prest egon. Beraz, irakasleak seguruago eta gaituago sentiarazten dituen formazioa izanik, zer hobe prebentzioan prestatzeko aukera ematea baino.

# **Zinema: prebentzio tresna baliagarria**

Zinema, pelikula... gaiaren arabera tresna egokia izan liteke droga-menpekotasunen prebentzioa lantzeko. Istoriek eta irudiek gauza asko kontatzen ditzakete, eta horren gainean hausnartzeko bidea irekitzen dute.

Baliabide horren abantailak aprobetxatzeko aukera ematen du Irudi Bizia elkarteak. Eskolan lantzen diren gaiak eta zinea uztartzen ditu **Zineskola** programaren bitartez. Estreinatutako berriak diren filmak proiektatzen dituzte, eta ondoren, horrekin lotutako gaiak

lantzeko programa didaktikoak. eskaini: batetik, ikasleei zuzendutako didaktika unitatea, eta bestetik, irakasleentzako gida didaktikoa.

Hezkuntza maila guztietarako eta eskolan lantzen diren gaietarako egokiak diren programak dituzte, eta baita droga-menpekotasunen prebentzioa lantzeko ere. DBH 1., 2. eta 3. maila-erako programan, esate baterako, 200 ikastetxe inguru ari dira parte hartzen ikasturte honetan, eta 4. DBH-erako programan ere beste hainbeste.





Programa horien helburu nagusia zinearen bitartez ikasleak gero ikasge-lan egin beharreko lanerako motibatzea eta prestatzea da. Horrekin batera, ikasleari bere garapen osoan laguntzea eta gizaki autonomo, kultu eta kritikoa bihurtzeko bitartekoak ematea da.

Aurten droga-menpekotasunen gaia lantzeko aukeratu dituzten filme-ekin eta prestatu dituzten unitate didaktikoekin nerabeei eguneroko bizitzak eskaintzen dien errealitatea ikusten lagundu nahi diete. Azaltzen zaizkien arazoei eraginkortasunez aurre egiteko

behar dituzten trebetasunak garatzen eta hausnarketa kritikoa egiten irakatsi nahi diete. Zenbait sustantzien kontsumorako izango dituzten eragin eta presioak prebenitzeko beharrezkoak diren mekanismoak eta sormenezko irtenbideak bilatzen laguntzea da xedea.

## Helbide interesgarriak

	Telefonoa	E-posta	Web orria
Askagintza	943 336 080	askagintza@euskalnet.net	www.askagintza.com
AGIPAD, Drogen gehiegikeriaren Gipuzkoako Ikerketa eta Prebentzio Elkarte	943 473 864	haizegain@hotmail.com	www.agipad.com
Ai Laket!!	945 254 633	ailaket@ailaket.org	www.ailaket.org
APIDA, Droga-menpekotasunen prebentziorako eta ikerketarako Arabako Elkarte	945 279 298		
AZTERTUZ, Ongizate Sozialeko Kabinetea	94 424 25 42	prevencion@edex.es	
EDEX kolektiboa	94 442 57 84	edex@edex.es	www.edex.es
Etorikintza Fundazioa	94 444 42 49	sota@etorkintza.org	www.etorkintza.org
Drogarik gabe bizi fundazioa	94 441 85 82	info@fvsd.org	www.fvsd.org
HAZKUNDE, Buru osasunaren aldeko institutua.	94 423 23 32	hazkunde@correo.cop.es	www.hazkunde.com
Irudi Biziak	944 166 677	irudi@irudibiziak.com	www.irudibiziak.com
KEINU, Droga-menpekotasunen prebentzioa bultzatzeko elkarte	94 441 85 82	info@keinu.org	www.keinu.org
Drogamenpekotasunerako Euskal Elkarte		administracion@avd-dee.org	www.avd-dee.org
Ekimen	699 832 133	ekimen@ekimen.org	www.ekimen.org
Drogamenpekotasunen Deustuko Institutua	94 413 90 83	drogodependencias@deusto.es	www.idd.deusto.es
Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietarako Zuzendaritza	945 018 104	información@drogomeia.com	www.drogomeia.com
Drogamendekotasunen Euskal Behatokia	945 018 104	drogodep1@ej-gv.es	www.drogomeia.com
Drogamendekotasunen Euskal Behatokiaren Dokumentazio Zentroa	945 018 104	documentacion@drogomeia.com	www1.euskadi.net/drogodep
Nafarroako Gobernua			www.cf.navarra.es

Droga-menpekotasunen  
prebentzioa

G

# maite saenz

**Irakaslea eta  
Ikastolen Elkartean materialgintzan  
diharduena**



Irakasleei material bakoitzaren  
atzean dagoen filosofia eta lan  
estiloa helaraztea, hori da  
funtsezkoena.



Proposamen  
kurrikularretan  
berrikuntza  
izugarriak eman dira  
azken urteotan:  
arloan globalizazioa,  
balioen lanketa,  
proiektuetan  
oinarritzea ikasleen  
jarduna,  
hizkuntzaren lanketa  
komunikatiboa, gai  
berriak lantzea  
eskolan...

Maitek 24 urte daramatza irakaskuntza munduan. Inurri langile, irakasle lanetan eta ko-ordinazio pedagogikoan aritu izan zen Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolan. Azken 7 urteotan ikasmaterialgintzan dabil buru-belarri, Ikastolen Elkartea eta Elkar argitaletxe-ekin. Txanela proiektua da lan talde zabal bat sortzen ari dena, Lehen Hezkuntzako 6. mailara artekoa izango den material kurrikularra.

Ideien fabrikari egiten du lan, ikasmaterialgintza asmatzea baita, mola eraman teoriako printzipio aurrerakoiak gelako praktikara. Ikasgelan denboraren makinak edo haizearen laborategiak ikusten ditu Maitek, haurrak pirataz moztururik, galderei erantzunak aurkitzen. Beretzat ikastea zer den, gela bat zer den kontatu digu.

**Materialgintzan ari zara aspaldian. Zuretzat zer dira testu liburuak, zer zentzu ematen diezu?**

Testu liburuak *a priori* esanahi peioratibo bat eduki izan du. Baina testu liburua proposamen kurrikular baten barnean ulertu behar dela uste dut. Eta proposamen kurrikular horren barruan hainbat atal azaltzen dira: ikasleek erabiltzeko materialak, irakasleak erabiliko dituenak, gelarako direnak (bideoak, esaterako) edota formatu ludikoa dutelako ikasgelaz kanpo ere erabiltzen direnak (jolas interaktiboak eta beste). Horien artean, guretzat muina irakasleen gida didaktikoak dira, bertan biltzen baita proiektuaren filosofia eta elkarrekintza estiloa. Azken batean, liburu edo material bera modu askotara erabili daiteke, eta dena da material horren atzean dagoen hausnarketa, filosofia helaraztea irakasleei, zergatik proposatzen den hori. Horregatik, gure kasuan, egileok irakasleekiko harremana asko zaintzen saiatzen gara, joan-etorriko komunikazioa eduki behar dugulako praktikan ari direnekin. Alegia, eurek gure asmoak jakin ditzaten, eta geuk ere jakin dezagun zein diren praktikan dituzten zailtasunak eta zer ebaluazio egiten duten. Proiektu hauek ez baitira behin egin eta bukatzen direnak; saiakerak dira, proiektu biziak, eta irakasleekiko komunikazio hori ezinbestekoa da.





### Haurren prozesua segitzeari ere garrantzia ematen diozue.

Bai, adibidez, hizkuntza idatziari dagokionez, badakigu gure proiektuak erabiltzen dituzten ikasleak zer bilakaera eta zer emaitza ari diren lortzen. Horretarako, ikasle denen lanak bildu eta segimendua egiten dugu, irakasleek proiektuko mintegietara ekartzen baitzikigute euren haurren lanak. Garrantzitsua da hori bi gauzengatik: batetik, irakasleak bere lana kontrastatzea behar duelako eta beste profesionalak nola ari diren ezagutzea, praktika nola hobetu ikusteko. Eta bestetik, guri ere komeni zaigulako proposatzen ditugun jarduerak zer ondorio dituzten ikustea. Argitaratu aurretik esperimentazio taldeetan ere aztertu izan ditugu proiektu berri baten ondorioak. Haurren segimendu hori zuzenean egitea ere gustatzen zaigu; alegia, gozatu egiten dugu gelatan sartu eta ikusten nola egiten duten lan, zer fasetan dauden, eta gelatik ere informazioa jasotzen dugu.

### Zein da haurraz duzuen ikuskera, eta hori zertan nabari da zuen proposamen kurrikularretan?

Haurrak izan baditu berezko gaitasun batzuk, eta hezitzaileon ardura da sortzez dituen gaitasun horiek indartzea, estimulatzea eta bizirik jarrai dezaten bermatzea. Haur hori ezagutu egin behar dugu, entzun. Ikuspegi kons-

truktibista batetatik, ulertzen dugu haurrak eraikitzen duela bere ezagutza lehendik dituen ideiekin loturak eginez, eta prozesu horretan subjektu aktiboa haurra dela eta helduaren papera aldamia egiten laguntzea dela. Haurraren ikuspegi hori gero gure ikas material eta proposamenetan islatu egiten da. Adibidez, ikasgelan ahalik eta giza interakzio aberatsenak bultzatzen saiatzen gara (helduak hurrekin, haurrak hurrekin, binaka...). Bestetik, proiektuetan oinarritzen dugu ikasgelako lana; proiektuen bidez, haurrak hartzaile jakin batentzat egiten du lan konkretu bat, funtzionaltasun bat emanez gelan egiten denari.



Ikasleen  
segimenduari  
garrantzia handia  
ematen diogu.  
Hizkuntza  
idatziaren mailan  
badakigu gure  
proiektuak  
erabiltzen dituzten  
ikasleek zer  
bilakaera izan  
duten eta zer  
emaitza ari diren  
lortzen.  
Horretarako, ikasle  
bakoitzaren lan  
guztiak bildu eta  
aztertzen  
ditugu

Haurrari ez  
zaizkio gauza  
sinpleak eskaini  
behar, gai da bere  
erara arazoen  
komplexutasunaz  
hausnartzeko,  
hipotesiak egiteko  
eta kontrastatzeko

### Gaurko haur horrek zer ezagutza mota, zer gaitasun behar ditu landu?

Bizitzari aurre egiteko egun zein ezagutza mota beharko dituen argitzea da garrantzitsua. Lehen ezagutza ia estatikoa zen; egungo zientzia aurrerapenekin eta ikerketen abiadurarekin, gauza asko erlatibizatzen dira eta hainbat gauza ez dira egia absolutuak. Egundak haurrak ezagutu behar duena ez da jakintza entziklopedikoa (nahiz eta hainbat informazio jakin egin behar dituen eta memoria bezalako gaitasunak lantzea ere garrantzitsua den). Gaur gehiago inporta zaigu haurrak bere inguruan duen mundu hori guztia hausnartzeko, behatzeko eta erlazionatzeko gaitasunak lantzea; edota gaitasun afektiboak diren ekimena, sormena, autokonfiantza eta estimua lantzea, eta baita gizarteratzeko gaitasunak era egokian garatzea, iruditzen zaigulako horiek izango direla benetan gakoak etorkizuneko eskakizunei erantzuteko.

Gaitasun afektiboak eta gizarteratzekoak asko azpimarratzen ditugu. Txikitatik hasi eta goiko mailetara arte landu beharrekoak dira, gainera. Eta hor zerikusi handia dute giza balioek. Balioen heziketa modu integral batean egin behar da, eguneroko bizitzan hartu behar dute gorputza, aparteko ikasgai bihurtu beharrean. Zenbaitetan esplizitoki landu beharko dira balioak, haurrei egoera edo arazo konkretu bat aurkeztuz. Baina errealitatearen kon-

plexutasuna gaika sailkatu izan dugu (batean matematikak, bestean hizkuntza, bestean balioak), eta azkenean guztia elkarloturik dagoela ahazten dugu. Haurrak halaxe hautematen du, gainera.

### Euskal curriculuma oso presente duzue zuen proposamenetan.

Bai, oso garbi dugu gure proposamena Euskal Herrian sortua eta Euskal Herrirako sortua dela (itzultzeak lanak emango lizkioke bati baino gehiagori). Geografia eta Historian soilik ez, alor guztietatik saiatzen gara gure kultura, balioak eta ezaugarriak islatzen eta etengabe beste alor guztiekin erlazionatzen. Gainera, literaturan, musikan, bertsolaritzan luxuzko kolaboratzaileak ditugu: Txiliku, Mitxel Murua, Joxan Ormazabal, Juan Kruz Igerabide, Mikel Mendizabal, Imanol Urbietta, Enkarni Genua... Arte plastikoetan ere herri honetako ondarea aztertzeke saiakera egin dugu.

Hizkuntzari dagokionez, oso kontuan hartzen dugu zein den haur bakoitzak euskararekiko duen abiapuntua. 3. mailatik aurrera, besteak beste hausnarketa soziolinguistikoa planteatzen dugu ikasleekin.

Une interesgarrian gaude gure curriculumaren garapenerako. Hainbat erakunde, Ikastolen Elkartearen, konpromisoak hartzen hasiak dira eta eurekin harremanetan gaude, noski.





**Testu liburuen ajea zera omen da: irakasleak liburu horren atzean dagoen filosofia eta lan estiloa ikusi beharrean, liburuan begiak jarri eta bukatu arte segi egiten duela, kapituluz kapitulu. Zuek, egile bezala, halako kezkarik ba al duzue?**

Bai, noski. Horregatik irakasleen prestakuntzak eta irakasleekiko komunikazioak garrantzia handia du. Atera berri dugun materialarekin gertatu zaigu: hainbat irakasleri bere praktikan aldaketa handia egitea ekarri dio. Ez baita liburuari segi eta kito. Eskaintzen den material aniztasuna izugarria da eta hor aukeraketa bat egin behar dute. Gelan sortzen diren egoerak edo une horretan komunikabideetan agertzen dena txertatzeko ere aukera ematen du gure proposamenak, oso malgua da. Unitate didaktiko bakoitzaren irakasle gidak baditu gutxienez 40 orri. Lan handia ematen diogu irakasleari, materiala konplexua baita eta bere praktikan aldaketa eskatzen baitio. Horrek beldurra ekar dezake, lehengoak ematen dizun segurtasuna utzi egin behar duzulako. Horregatik, hasierako une horietan gure iradokizunak eta euren arteko komunikazioa oso lagungarriak izaten dira.

**Ikasleen aniztasunari erantzuteko, irakasleak nola erabili behar litzuke testu liburuetan?**

Gelako aniztasunari soluzioa gure proposamenak emango diola esatea harrokeria litzateke. Gela bakoitzeko aniztasuna irakasleak ezagutzen du, eta berak ikusi behar du memento jakin

batean aniztasun horri erantzuteko zer liburu, zer baliabide, zer jarduerak erabili eta zer ez, nondik hartu eta nondik kendu. Eta batez ere, nola landu behar dituen edukia. Gu ahalik eta abanikorik zabalena eskaintzen saiatzen gara, euskarri aniztetan eduki mota bakoitza lantzeko egokienak diren prozesuak ireki daitezten. Filosofikoki ere, haurren prozesuari ematen diogu garrantzia (askotan emaitzari baino gehiago), eta saiatzen gara erregulatzen gelako interakzio edo elkarreragin horiek (helduak hurrekin, haurrak hurrekin, talde txikitik, binaka), aniztasunari erantzun askotarikoak eman ahal izateko.

Galdera edo arazo berari oso erantzun ezberdinak ematen dizkiete haurrek, eta hori aberasgarria da. Irakasleak zera planteatu behar luke gero: "ikus dezagun haur bakoitzak erantzun hori emateko zer prozesu eta zer arrazoiketa jarraitzen duen", eta hori mahairatu, arrazonamendu horrek daukalako balioa, askotan emaitzak baino gehiago. Prozesuoi garrantzia ematen zaien neurrian, eta haurren aktibitate mental hori eta hipotesien mundu hori kontuan hartzen den neurrian, proposamenak irekiak daude aniztasunari erantzuteko. Askotan kontua ez da zer proposatzen den, baizik eta nola proposatzen den eta zer baloratzen den. Ez da beti erraza gelan 25 haur edukita. Egin behar duguna da aniztasunari erantzuteko estrategia konkretu batzuk bilatu eta landu. Baina intentzio hori beti garbi edukitzea da garrantzitsua.

**Badira testu liburuetan erabiltzen ez dituzten irakasleak ere.**

Nik oso kasu gutxi ezagutzen ditut, egiten hori esan dezaketena. Oso zaila baita curriculum batek exijitzen dituen osagai guztiak biltzen dituen programa osatzea irakasleak berak bakarrik. Lehen Hezkuntzan behintzat, ikasleek adinean gora egin ahala, orduan eta zailago, curriculumean ukitu beharreko esparruak asko zabaltzen direlako. Eta hor, batez ere, denboraren arazoarekin egiten dugu topo. Koordina-

zio horizontala eta bertikala bermatu beharko lirateke, hau da, irakasle talde osoaren inplikazioa bideratzeko denbora. Aldiz, errealitatean ikasle askorekin eta denbora gutxirekin egiten dugu topo, eta gauza horiek prestatzeak, adostea eta sekuentziatzeak denbora, formazioa eta lan egiteko gogoia eskatzen du. Beraz, nik uste dut proposamen kurrikular hauek lagundu egiten dutela. Besterik da, hemen jartzen duena itxuratsua egin behar izatea.

**Hogei urtetik gora daramatzazu irakaskuntzan, eta Ikastolen Elkarteak eta Elkarrek batera ateratako hainbat material egindituzu. Zein dira ezagutu dituzun aldaketarik handienak?**

Bata arloen globalizazioa da. Gaur sinestea kosta egiten bada ere, 3 urtekoentzat lehen materialak aurkeztu genuenean, globalizazioa planteatzea aldaketa izugarria izan zen, ordukoarekin haustea baitzen. Haur Hezkuntza ere arloak zatitzeko ohitura zegoen (ordu batean Hizkuntza, ondoren Matematika...). Globalizazioak dakarren balioen trataera ere berria zen. Haurra osatzen duten gaitasun guztiak garatzeari egun ematen diogun garrantzia eta gaitasunen apendizian eman diren urrats berriak ere oso interesgarriak dira.

Bestetik, haurri ez zaizkiola gauza sinpleak eskaini behar pentsatzea ere berrikuntza da, haurra gai delako bere modura gauzen konplexutasunaz hausnartzeko, hipotesiak egiteko, kontrastatzeko, eta horrela eraikitzen duelako bere ezaguera. Ezaguera hori eraikitzen duena, azkenean, haurra da, nahiz eta guk kanpotik lagundu eta elikatu.

Proiektuak lantzearen ideiak ere aldaketa handia ekarri du praktikara, alegia, gelan lantzen denari funtzionaltasun bat emateak, ikasleek zentzu bat emateak. Gainera, bere apendizian paper aktiboa izate horrek motibazioarekin duen erlazioa ikustea oso polita izan da.

Hizkuntzari dagokionez, hasi gine-

Euskara  
hutseko materialek  
desabantaila izugarria  
dute merkatuko  
prezioekin lehiatzeko;  
itzulpena onartzen  
duten materialen  
ekoizpena merkeagoa  
da. Baina nik ezin dut  
nire lana planteatu  
ikuspegi  
komertzialetik;  
proiektu batean  
sinesten dut edo ez  
dut sinesten



nean, hizkuntzaren egiturazko lanketa egiten zen. Gaur egun ikuspegi komunikatiboan eta hizkuntzen trataera integratuan oinarritzen gara. Euskal curriculumaren indartzeak ere aldaketa ekarri du Haur Hezkuntzatik hasita. Arteaz eta musika klasikoaz egindako ekarpenak ere berriak izan ziren bere garaian.

Gaiak ere berriak dira. Ordura arte gehienetan lantzen ziren gaiak etxea, kalea, baserria eta halakoak ziren. Egia da haurrak bere inguru hurbila ikertuz ikasten duela. Baina gaur egungo haurrak bere ingurune hurbila asko zabaldu du (besteak beste, komunikabideak direla tarteko). Horregatik hasi ginen gu dinosauroen garaia, lehen gizakia edo arabiarak bezalako gaiak hautatzen. Gai berri horiek motibazioa pizten

dute haurren. Guk ez ditugu eduki zehatz horiez asko jakiteko erabiltzen (ikasten dute, baina hori ez da helburua), baizik eta beste gaitasun eta trebetasun batzuk lantzeko (alderatzeko, hausnartzeko, ondorioak ateratzeko, informazioa biltzeko, trebetasunak lantzeko...); horiek dira benetako edukiak, garrantzitsuak direnak. Bukatzeko, gurasoekin bultzatzen ditugun harremanak (informaziozkoa eta kolaboraziozkoa) oso giro eta emaitza onak ematen ari direla aipatuko nuke.

**Zuen azken materialak, "Txanela"k, planteamendu bitxia du.**

Ziklo bakoitzari abentura baten planteamendua eman diogu. 1.zikloan, Bianako mutiko bati eta Orioko neska bati birraitonaren ametsa betet-

zea otu zaie: birraitonaren denboraren makina konpondu, eta denboran eta espazioan atzera-aurrera ibiliko dira, museo bat osatzeko. Abentura hori haurri aurkezten diogu, komiki bidez, eta abentura horretan murgildurik ibiltzen dira bi urte horietan zehar. Hurrengo zikloan, beste abentura bat eta beste pertsonaia batzuk izango dituzte.

Unitate didaktiko





bakoitzak oso antolaketa berezia du, teorikoki esaten ditugun egoera horiek guztiak gero benetan gela barruan gerta daitezzen. Motibazio jardueretatik hasi eta komikiak kokatu egiten ditu haurrak gaien; aurrezagutzak eta ezagutza okerrak aktibatu, eta proiektu bat proposatzen zaie haurrei. Proiektua garatzean, prozesuaren sintesia egiten da eta, jakina, proiektua azken bururaino eramaten da, hartzaile jakin batentzat gauzatuz. 2. zikloan elementu berri bat txertatu dugu, ikasleak lehen urratsak eman ditzan metaaprendizaiaren arloan (hau da, aprendizaiaren autoerregulazioan): zertan ari naiz, zertarako, lehen nekiena eta orain dakidana zer da... Erregulazio horretarako elementu asko proposatzen ditugu prozesu osoan zehar.



gi komertzialetik. Gauzak argi ditut, edo sinesten dut proiektu batean edo ez dut sinesten; beraz, merkatuan asko salduko litzatekeen materiala nire hezkuntza ulertzeko moduarekin bat ez badator, nik ez dut hori egin nahi.

**Materialgintzan argialetxeak lehiari dabilta, eta merkatuan ez da kanpotik etorritako eskaintzarik falta. Nola ikusten duzu egoera?**

Nik ez dut merkatuaren funtzionamendua gehiegi ezagutzen. Dakidana da, euskara hutseko materialek desabantaila izugarria dutela merkatuko prezioekin lehiatu ahal izateko; itzulpen hutsa onartzen duten materialen ekoizpena askoz ere merkeagoa baita. Gauza kuriozosa pasa zitzaigun CD-ROMarekin: orotara, merkeago ateratzen zen kopia gehiago egitea, kopia gutxiago egitea baino. Zergatik? Makinak programatuta dauden moduan, prozesua eten egin behar zutelako kopia gutxiago egitekotan. Beraz, edozein marrazkiri 40.000 kopia atera behar badizkiozu gero gaztelaniako, katalaneko eta gailegoko itzulpenetan ere erabiltzeko, pentsa irudi hori zenbat aletan amortizatzen duzun. Gurea, berriz, oso eskala txikiko produkzioa da. Euskal argialetxeok, nik dakidala, diru laguntzei esker irauten dugu. Eta bestetik ez dakit kontzientzia handirik ote dugun horren inguruan; fotokopiatara erraz jotzen dugu irakasleok.

Egia da ekoiztu ahal izateko merkatuak erantzun egin behar duela. Baina nik ezin dut nire lana planteatu ikuspe-

**Guraso eta ikasle askoren marmarra da, "beti testu liburu berriak ateratzen ari dira, eta arrebak erabili zituenak ez dizkio balio hurrengoari".**

Ez da egia urtero-urtero aldatzen direnik. Egia dena da aldaketa bi seme edo alaben tartean gerta daitekeela eta gertatzen dela. Egin kontu, 3 urtetik hasi 5. eta 6. mailara arteko proiektu bat "bukatzeko" dugunerako ia hamar urte joaten zaizkigula. Eta hamar urtean hainbat gauza aldatzen dira eta ikasten ditugu, non berrikuntza horiek ikasgelara eraman behar ditugun. Ideala bost urtetik behin berritzea litzateke, hala ere. Lan hauek ez dira inoiz "bukatzeko", beti dira saiakerak. Gainera, duela hamar urtekoak eta oraingoak ez dira haur berdinak, eta haur horrek bere lanean eta bizitzan izango dituen espektatibak ere aldatu egiten dira. Juan Ignacio Pozok, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Psikologian katedradunak kuriozoki esaten zuen bezala: "XIX. mendeko edukiak, XX. mendeko irakasleekin XXI. mendeko haurri erakusten ari gara". Beraz, hori eguneratu egin behar da. Etengabe galdetu behar dio gu geure buruari nor den eta nolakoa den hezten ari garen haur hori.

Irakasle oso gutxi ezagutzen ditut, testu libururik gabe funtzionatzen dutenak, oso zaila baita curriculum batek exijitzen dituen osagai guztiak biltzen dituen programa osatzea irakasleak berak bakarrik.

Horretarako irakasleak oso jantzia izan behar luke gai guztietan, eta irakasle taldea eduki behar luke. Eta gaur daukana da ikasle asko eta denbora gutxi.

Proposamen curricular hauek laguntza bat dira alde horretatik



## www.wapoa.net

### Ipuin didaktikoak sarean

Haurren galderak omen dira erantzuten zailenak. Helduek malabareak egin behar izaten dituzte esplikazio teknikoegietan edo fantasian ez erortzeko. [www.wapoa.net](http://www.wapoa.net) guneak ipuin didaktikoak eskaintzen ditu, haurren kezkei erantzuna ematen dieten ipuinak. Kontakizunok adin bakoitzera moldatuta daude eta gaiak eskatzen duen sentsibilitatea zaintzen dute. [www.wapoa.net](http://www.wapoa.net) 3 urtetik 12ra bitarteko haurren guraso, aitorana-ama zein irakasleei zuzendutako gunea da. 2004ko Kutxa Saria jaso du proiektuak.

Senide baten heriotzan zer esan, nola azaldu aita eta ama banatzera doazela edota amak etxera dakarren hori laguna baino gehiago dela... Egoera horiek omen dira, nola esan jakin ez eta, helduak hankazgora jartzen dituztenetakoz. Hala kontatu digu Ainhoa Maiztegik, ipuin didaktikoen egileak: *"telefono mugikorren, pagaren edota arropa marken inguruan ere kezka handia azaldu digute gurasoek, alegia, nola landu gai horiek euren seme-alabekin, 'nire lagun guztiek*

*badute' esaten dietenean. Bistan da, gaurko gizartearen ezaugarri nabarmena dela kontsumoa".*

Eguneroko gatazka txiki zein handi horiei buruz mintzatzeko tresna oso egokiak dira ipuinak, hasteko heldua eta haurra elkarrekin denbora zati bat partekatzen jarrarazten dituelako. Gizarte estresatu honetan, lanetik begizulo-karraio itzultzean, etxekoekin hitz egiteari ere bere denbora eskaini behar zaiola ahazteko arriskua dugu. Komunikazio ohitura horiek sortzea da proiektu honen egileen helburua: *"haurrari gaur zer egin duen edo zer gertatzen zaion galdetzeko denbora ere hartu egin behar da. Azkenaldian*

*kezka sortzen dion gai horri buruz hitz egiteko patxada ere hartu egin behar da. Eta ipuin bat izan daiteke gaia ateratzeko modua, elkarri denbora eskaintzeko mementoa ekartzen du ipuin batek".*

#### Arazoei neurrira egindako ipuinak

Gai zehatz bati buruzko ipuina mementoan eskuratzea, horixe da [www.wapoa.net](http://www.wapoa.net) guneak eskaintzen duena. Helduak web gunera jo eta kezka, gai edo balio bati buruz propio egindako ipuina inprima dezake. Eta nahi duen gaia zerrendan ez badago, enkarguz ere eskatu dezake halako ipuina egiteko, edota pertsonaiei hala-



ko izenak jartzeko. Enkargua egin eta zortzi egunera bere posta elektronikoa jasoko du ipuina.

Ipuin didaktikoek gai bakoitzak eskatzen duen sentsibilitatea eduki behar dute. Ainhoak kontatu digunez, ipuinak sortzerakoan psikologo biren laguntza jasotzen du: *“psikologoek esaten didate nola landu gaia, arazo hori zerk sortzen duen edota zer roletako pertsonaiek egon behar duten”*. Ipuin bakoitza adin ezberdinetara egokitzen du gero.

Web gunean 50 ipuinetik gora jarriak dituzte, eta gaika daude sailkatuta. Bullinga, kultur aniztasuna, heriotza, dirua, lana, etxean animaliak eduki ala ez, eta beste hainbat gai lantzen dituzten ipuinak dira. Istorio guztiek pertsonaia nagusi bera dute: Apo estralurtarra.

### Haurrarekiko komunikazioa lantzeko hainbat zerbitzu

Web gune honek beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu, haurraren eta hezitzailearen arteko komunikazioa indartzea dutenak xede.

**Zerbitzu psikologiko profesionala.** Haur-psikologo talde batekin jar zaitzke harremanetan web gunearen bidez, haurrekin zerikusia duten kezkek edo galderak egiteko. Datuak konfidentzialak dira. Zerorrek hala nahi izanez gero, web gunean azaltzen dituzte egindako galderak; bestela ez.

**Foroa.** Beste hezitzaileekin haurrei buruzko gaur egungo gaiez mintzatzeko, eztabaidatzeko gunea.

**Planak.** Haurrekin batera egin dai-

**Haurrekin bere kezkez hitz egiteko denbora hartu egin behar da. Ipuin bat izan daiteke gaia ateratzeko modua. Elkari denbora eskaintzeko unea ekartzen du ipuinak.**

tezkeen bisita edo txango didaktikoak proposatzen dituen txokoa.

**Kontsultak.** Zerbitzuon arduradunekin harremanetan jartzeko atea.

www.wapoa.net-ek eskaintzen dituen zerbitzuetara sarbidea izateko, kode bat eskuratu behar da. Bi tarifako kodeak daude: asteko kodeak 8 euro balio du, eta web gunera 8 aldiz sartzeko aukera ematen dizu. Hilabeteko kodeak 30 euro balio du, eta 35 aldiz sartzeko aukera ematen du. Web gunean sartzen zaren aldi bakoitzean, nahi adina zerbitzu erabili ditzakezu. Kodea ez da derrigor aste horretan edo hilabete horretan agortu beharrik; urtebeteko epea duzu kode hori erabiltzeko.

### KUTXA saria lortu duen proiektua

Heziketari eskainitako web gune honen atzean lan talde zabala dago, profil profesional askotarikoak biltzen dituen lantaldea. Hauek dira proiektuaren kideak: Ainhoa Maiztegi, ipuin didaktikoen idazlea eta marrazkilaria; Aintzane Berasategi eta Koldo Manso psikologoak, ipuinen eduki didaktikoa zaintzeaz arduratzen direnak eta gurasoei zerbitzu psikologikoa eskaintzen dietenak; Haroa Rodriguez, diseinu grafikoaz eta web gunea eguneratzeaz arduratzen dena; eta Iñaki Berasategi, ipuin didaktikoen ilustratzailea.



Proiektua burutik Interneteko pantailara eramateko bidean, Garapen zerbitzuaren eta Donostiako Enpresa Zentroaren laguntza jaso zuten. Horiek lagundu zieten bideragarritasun plana egiten. Proiektuak 2004ko Kutxa saria jaso berri dujoan den negu honetan, eta ideia pantailaratu ahal izan dute. Orain arte jendeak nola erantzun duen ikusita, oso gustura daude. Ipuin didaktikotara jotzen du gehien jendeak, eta psikologoari ere askok eskatzen dio aholkurik arazo zehatzen aurrean. Baina proiektuko partaideek diotenez, eurentzat arrakastarik handiena zera da: gurasoek gauero ipuin bat eskaintzea haurrei. ●





## Artista txikien aztarnak Zangozako ikastolako atarian

Gremioek beren lana ongi egiteak ez digu eragotzi behar zenbait gauza geure eskuz egi-  
tea. Gaitasun gutxiago edo  
gehiago izango dugu, hobeto  
edo okerrago geldituko da lu-  
kaerako lana, baina probatzen  
ez badugu, ez dugu egiten jakin-  
go inoiz.

Zangoza ikastolako haurrek  
probatu egin zuten, eta guraso-  
ek uste baino hobeto burutu zu-  
ten lana: jolastokiko zutabeak  
margotzea. Duela bi urte, ikas-  
turte osoa pasa zuten 5. eta 6.  
mailetako ikasleek dena pres-  
tatzen, eta azkenean, ikastur-  
te amaierarako zutabeak kolo-  
retako marrazkiz homituta  
zeuden. Geroztik beste bizita-  
sun bat ematen diote ikastola-  
ren atariari artista haien lanak.

Ideia sortzaileak Jone Areta eta  
Axun Urkia irakasleak izan ziren. Nafa-  
roako Ikastolen Elkarteak Plastikaren  
inguruan antolatutako formazioa jasot-  
zen aritu ziren hiru urtez. Horrez gain,  
Axunek Hik Hasi Udako Topaketa Pe-  
dagogikoen barruan egin zen plastika-

ren gaineko ikastaroan hartu zuen par-  
te. Ikasitakoari etekina ateratzeko as-  
moz, biak hasi ziren Plastika ikasgaia  
nola landu pentsatzen. *“Beti albo bate-  
an gelditzen den ikasgaia izan ohi da,  
eta garrantzi gehiago eman nahi ge-  
nion”*. Hala, buruari bueltak ematen ha-  
si, eta ikastolako jolaslekuko zutabeak  
margotzea bururatu zitzairen. Gehiago  
itxaron gabe, 5. eta 6. mailetako ikaslee-  
kin ideiak praktikan jartzen hasi ziren.

Hasieratik argi zeukaten esperient-  
zia hainbat gai lantzeko baliagarri izan-  
go zitzaie, ez margoketa soilik. Esate  
baterako, argazkigintza, matematika,  
teknologia, talde lana...

### Informazioa bilatzea

Lehendabiziko urratsa zutabeei ar-  
gazkiak ateratzea izan zen. Horretara-

ko, argazkilari bat gonbidatu zuten  
ikastolara, eta hark argazkiak ateratze-  
ko orduan zer hartu behar den kontuan  
esplikatu zien.

Ondoren, oinarri artistiko bat hart-  
ze aldera, horrelako lanik egindako ar-  
tistari ba ote zegoen ikusten hasi ziren.  
Horretarako, iturri anitzetara jo zuten:  
arte liburuak, Internet, entziklopediak,  
etxean galdetu... Ez daude asko, baina  
batzuk bai, eta horrela ezagutu zituzten  
Ibarrola, Legorburu eta beste zenbait.

### Ideiak eta diseinuak pape- rean

Behin hori eginda, ikasleak beraiek  
hasi ziren diseinuak eta marrazkiak egi-  
ten. Hasieran bakoitzak berea, banaka,  
eta gero taldeka. Gai askotarikoak sor-  
tu ziren, eta batzuek zutabe bakoitzera-



ko irudi bat proposatu zuten; beste batzuek, ordea, bederatzi zutabeak osotasunean hartuta planteatu zuten diseinua.

Taldeka bildu ondoren, talde bakoitzari zutabe bat margotzea zegokion. Horretarako, bakoitzak egindako proposamenetatik abiatuz, denen artean bat aukeratu behar izan zuten. Batzuek hoberena aukeratu zuten, eta beste batzuek proposamen bakoitzetik elementu edo gauza hoberenak hartuz beste diseinu berri bat osatu zuten.

*“Denbora dexente jardun genuen honetan, eta garrantzitsuena eta zailena talde lana izan zen”* diote Jone eta Axunek. *“Adin horretan kosta egiten zaie beraien lana eta aurreiritziak alde batera uztea, eta denen arteko adostasuna lortzea... baina azkenean ohartu ziren talde lana zela, zutabea taldearena zela eta denen artean egin behar zutela”*.

### Paperetik maketara

Diseinuak egin ostean, hurrengo lana maketak egitea zen. Noski, horretarako zutabeak neurtu behar ziren. Horrek oztopo bat baino gehiago sortu zien, zutabeak altuak baitira eta forma biribildua baitute. *“Oztopo horiek ikasleek beraiek gainditu beharreko erronkak ziren, beraiek asmatu behar baitzuten nola egin neurketa. Matematikako hainbat elementu erabili behar izan zituzten”* gaineratzen dute irakasleek. Behin zutabeen neurri errealak



Jone Areta eta Axun Urkia irakasleek bazekiten hasieratik haurrak zutabeak margotzeko gai izango zirela.

hartutakoan, maketak eraikitzeko proportzionaltasuna mantendu beharra zeukaten, eta hor ere beste hainbat elementu matematikorekin aritu ziren lanean.

Maketak liburutegian eta pasabideetan jarri zituzten, denek ikusteko moduan: batzuk argazkien bidez eginak, beste batzuk marraztuak, beste zenbait hiru dimentsiotan...

Ikastolako guztiek izan zuten aukera liburutegitik pasa eta gustukoena ziztuzten maketak aukeratzeko. Eta gero, bozketa bidez erabaki zuten zein bederatzi aukeratu. *“Bozketa ikasleen, irakasleen eta gurasoen artean egin zen, eta beraiek prestatu zuten dena: bozketa iragartzeko kartelak, oharrak edo zirkularrak, bozkatzeko paperak eta abar. Ordenagailuaz baliatu ziren horretarako, eta hainbat programa erabiltzen ikasi zuten. Bozketaren emaitzetatik hainbat taula eta informazio grafiko egin zituzten, eta ikastolako guztien begi-bistan jarri zituzten”*.

### Maketatik zutabera

Margotzen hasi aurretik, arkitekto bati hots egin zioten eta ikasleek hura elkarriketatu zuten. *“Aurretik galderak prestatu genituen sortu zitzaizkigun hainbat zalantza argitzeko. Adibidez, zutabeak zein materialez eginak zeuden, zein motatako margoak beharko genuen, zutabearen zulotxoak nola estaliko genituen... Eta zutabeak margotzeko beharrezkoa izango genuen materiala ere zerrendatu ge-*


*nuen: kolore desberdinetako margoak eta bakoitzetik zenbat kilo, zenbat brotxa, zenbat pintzel...”*

Hori guztia ordaindu egin behar zen, noski. *“Ikasleek beraiek zeramaten aurrera proiektua, eta hasieratik esan genien proiektuak autogestionatu izan behar zuela eta beraiek pentsatu beharko zutela nola finantzatu”*. Horrekin ez ziren beldurtu, inondik inora. *“Ikastolan 2-4-6 izeneko elkar-  
tea daukagu”* azaltzen digute irakasleek. *“2., 4. eta 6. mailetako ikasleez osatutako elkar-  
tea da eta kontsumo eta en-  
presa munduan hasteko urratsak ikastea da helburua. Horretarako, dirua lortzeko hainbat gauza antolatzen dituzte: ikastolako jaialdiak, ogitartekoen eta pintxoaren salmenta ikastolako festan, eskulanean salmenta, Javierada egunean hamaiketakoak saltzea eta abar. Ondoren, beraiek*

**Hasieratik argi zeukaten esperientzia hainbat gai lantzeko baliagarri izango zitzaizela, ez margoketa soilik. Esate baterako, argazkigintza, matematika, teknologia, talde lana...**



## Urrats bakoitzean landu dena



*erabakitzen dute dirua zertan erabili. Zutabeen proiektuaren kasuan, hortik ateratako diruaz baliatzea erabaki zuten”.*

Erosketak egin aurretik, dendetan aurrekontua eskatu zuten, horrela dena alde zuretik kalkulatu eta neur-tuz.

Zutabeak koloreztatzen hasi aurretik, diseinua erreproduzitu zuten zuta-bearen gainean, eta ondoren, pintzelak

eta margoak hartu eta ekin. Hori izan zen ikasleei gehien gustatu zitzaiena, gehien gozatu zuten unea. Hainbeste denbora prestatzen egon ondoren, be-netako ordua iritsi baitzen.

### Herriarrentzako erakusketa

Ikastolaren atarira hurbiltzen den orok ikus ditzake margotutako zutabe-ak, baina Jonek eta Axunek diotenez, herri guztiari eman nahi zioten egin zu-

tenaren berri, ez handik pasatzen zena-ri bakarrik. *“Izan ere, ez da bat-batean, pentsatu gabe edo nola hala egindako zerbait. Aitzitik, hor atzean prozesu ja-tor bat dago eta hori jakin zezaten nahi genuen. Garrantzitsutzat jotzen ge-nuen herrira ateratzea gurasoekin eta familiarekin partekatzeko”.*

Horretarako, erakusketa bat presta-tu zuten Zangozako kultur etxean, pro-zesuan zehar ateratako argazkiekin, maketekin... Bertaratu zirenek proiektua hasieratik bukaeraraino nola izan zen, zenbat urrats eman ziren eta abar ikusi zuten.

Gurasoak ere oso pozik gelditu zi-ren, eta zenbait harrিতa ere bai. Izan ere, hasieran irakasleek proiektua planteatu zietenean, zalantzan jarri zu-ten ikasleen gaitasuna. Batzuek horre-lako lan bat egiteko txikiegiak zirela us-te zuten, beste batzuek ez zekitelako mar-gotzen zioten... Azkenean, ordea, pro-ba egiten uztea erabaki zuten, eta buka-eran zoriondu egin zituzten, bai ikasle-ak eta baita irakasleak ere. •



# kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

## Ama hizkuntza, eskolako hizkuntza eta eskolatzea

Ignasi VILA

Carina SIQU S

Elisabet SERRAT

Josep Maria SERRAT

Pilar MONREAL

Gironako Unibertsitateko Hezkuntza eta Psikologia  
Fakultateko irakasleak

Kataluniako hezkuntza sistema hezkuntza elebidunaren parametroen arabera antolatua dago. Horrela, familiako hizkuntza ezberdinak ere, ikasle guztiek derri gorrezko hezkuntza bukatzen dutenean katalanaren eta gaztelaniaren ezagutza maila ona lor dezaten. Hezkuntza sistenak familiako hizkuntzari eusteko programak eta hizkuntza murgiltze programak elkartzeko dituzte, nahiz eta hizkuntza murgiltzeen antza duten zenbait eredu misto ere egon (Vila 2004a, 2005).

Hainbat programatan katalana erabiltzen da irakaskuntza-ikaskuntza jardueretan eta familiako hizkuntzak tratamendu berezia jasotzen du; bai eskolako hizkuntza gisa (familiako hizkuntzari eusteko programak) bai heziketa praktika gisa (murgiltze programak).

Planteamendu hori egokia zen Kataluniako ikasleria elebiduna zenean, hots, 80ko hamarkadan. Ikasleen % 60ren ama hizkuntza gaztelania zen eta % 40rena katalana. Aipatu programen emaitzak positiboak izan dira (ikus Vila 1995) eta Kataluniako ikasleen gaitasun elebiduna bultzatzeko balio izan dute. Dena dela, programa elebidun gehienetan gertatzen denaren ildotik (Swain, 1995), bigarren hizkuntzako ahozko gaitasuna beti txikiagoa da lehen hizkuntzako baino. Horrela, hizkuntza murgiltze programetako ikasleak gaitasun ona lortzen du eskolako hizkuntzan irakaskuntza-ikaskuntzako jarduerak egiteko, baina ahozkoan katalana ama hizkuntzat duenak adinako mailarik ez du lortzen (Arnau eta Serra, 1002).

Gainera, hizkuntzako murgiltze programak tresna egokiak dira gizarte eta familia inguruneetan presentziarik ez duen hizkuntza bat ikasteko, baina

ez ikaslearen berezko hizkuntza aldatzeko edo eskolako hizkuntzan oinarritutako balizko nortasun homogeneoa "ezartzeko". Horregatik, nahiz eta Kataluniako hizkuntza murgiltze programan dagoen ikasleak bere ikasketako jarduerak katalanez egin, gela barruko nahiz kanpoko harreman pertsonaletan gaztelania erabiltzen du (Mena, 1995).

Edonola ere, azken urteetan erabat aldatu da Kataluniako egoera. Bartzelonan, esaterako, 2004-05 ikasturtean eskolatu diren 3 urteko haurren % 13 atzerritarak dira, eta Girona probintziako Saltherrian % 50. Orain dela 10 urte pentsaezina zen egoera horrek arazoak sorrarazi dizkio Kataluniako hezkuntza sistemari (Vila, 2004b, 2004c), oinarriak eta planteamendu teorikoak zalantzan jartzen baititu. Familiako hizkuntzak asko ugaritu dira eta baliogabetuta gelditu da eredu elebiduna, zeina irakasle guztiek ezagutzen zituzten bi hizkuntzetan oinarritzen zen. Ondorioz, Katalunian eskolatutako haur eta gazte atzerritar gehienei eskaintzen zaien eredu hizkuntza murgiltzearena da, eta horrek arazoak sorrarazi ditu (Vila 1998, Vila 2004a).

Horrekin batera, garrantzi handiko

fenomeno bat sortu da: "kontzentrazio artifizialak". Nahiz eta familia autoktonoek esan ez zaiela axola euren seme-alabak etorkinekin batera eskolatzea, eskoletatik atera egiten dituzte. Ondorioz, eskola horietako ikasle atzerritarren ehuneko herrialdeko proportzioarekin alderatuz askoz ere altuagoa da. Horrenbestez, orain arte Katalunian ezezaguna zen egoera sortu da: sei, zazpi edo zortzi hizkuntza desberdin dira gelako haurren ama hizkuntzak, eta gainera, urtez urte, hizkuntza horiek alda daitezke, batzuk desagertu eta beste berri batzuk gehitu. Egia da Katalunian "berria" den egoera hori dagoneko "zaharra" dela Europako beste zenbait lekutan. Baina aldi berean, egia da zaila dela bi alderdiak batzen dituzten hezkuntza praktikak edo esperientziak aurkitzea: batetik, gelako hizkuntz aniztasuna, eta bestetik, ikasleen aniztasuna gelako hizkuntzaren ezagutzaren gainean. Bigarren puntu hori oso garrantzitsua da, batez ere kontuan harturik Kataluniako hezkuntza sisteman berandu eskolatzen direla asko. Beraz, gela berean ikasle hasiberriak eta hezkuntza sistema katalanean lau, bost edo sei urte daramatzatenak elkartzen dira.

Normalean hezkuntza elebidunaz eztabaidatu izan denean, ikaslearen berezko hizkuntza eskolan landu edo eztabaidatu izan da (Appel, 1988). Haatik, hausnarketa gutxi egin dira honi buruz: nola egin linguistikoki heziketa praktika aberasgarriak murgiltze programetan, ikasleek eskolako hizkuntzaz duten ezagutza oso desorekatua eta askotarikoa baldin bada.

Horren inguruko ikerketa etnografiko bat egin dugu ikasleen % 80 baino gehiago atzerritarrek diren eskola bateko Lehen Hezkuntzako 1. mailan.

### Metodologia

Eskola Salt herrian (30.000 biztanle ditu) dago eta Gironako metropoli barrutiko zati da, Sarría eta Sant Juliá de Ramis-ekin batera. Salten etorkin asko bizi da (% 20 inguru) eta eskola publikoetan duten presentzia garrantzitsua da. Baita gehiengoaren diren herriko zenbait gunetan ere.

Eskola Haur eta Lehen Hezkuntzako da eta bilero ditu. Gela bakoitzeko tutore bat dute, espezialistekin batera. Horrez gain, "solasaldi gela"-ren arduradun diren bi pertsona daude eta berandu eskolatzen diren ikasleak joaten dira bertara. Irakaskuntza-ikaskuntzako hizkuntza katalana da eta gaztelania ikasgai modura irakasten da Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera.

### Ikasleen ezaugarriak

Nahiz eta legediaren arabera gelako ratioa 25 ikaslekoa izan, aztertutako gelan 29 ikasle zeuden. Bost hizkuntza daude presente eta jatorrizko herrialdeak zazpi dira. Sei espainiarretatik bat gaztelania/arabiar elebiduna da eta beste bi ijitoak. 29 ikasletatik 14 3 urterekin eskolatu ziren, bost 5 urterekin, sei 6 urterekin eta gainontzeko laurak 2003-04 ikasturtean. Ikasleen familiak maila soziokultural baxukoak dira. Lau ikasle laguntza indibiduala eta espezifikoa jasotzen dute. Ikasle gehienak etxera joaten dira bazkaltzera, eta beraz, 9:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 17:00etara joaten dira eskolara. Bi ikasle askotan huts egiten dute eta beste batek lau hilabete pasa ditu jatorrizko herrialdean.

### Prozedura

Ikerketa egin duten bi pertsonak gelako jardueretan hartu dute parte pa-

re bat goizetan eta batez ere haurrek zein hizkuntza erabiltzen zuten aztertu dute.

### Emaitzak

Emaitzak bi taldetan sailkatu ditugu: lehenbizikoan familiako hizkuntzari buruzko behaketak eta bigarren-ean eskolako hizkuntzaren ezagutza eta erabilera.

### Familiako hizkuntza, katalana edo gaztelania?

Ikasleek gela barruko harreman gehienak katalanez egiten dituzte, bai eskolakideekin bai helduekin. Normala da. Izan ere, 3 urteko gelan, hainbeste hizkuntza egonik, haurrek "hizkuntza franko" bat behar dute euren artean erlazionatzeko. Haur gehienek katalanaren bitartez ezagutu dute elkar. Beraz, eskolako lehen urteetan, behintzat, hizkuntza horretan erlazionatzen dira.

### Gaztelaniaren erabilera

Edonola ere, zenbait egoeratan etxeko hizkuntza edo gaztelania erabiltzen dituzte. Gaztelaniari dagokionez, gaztelania dakiten ikasleen artean eta gaztelania dakiten eta ez dakitenen artean agertzen da (gogora ekarri behar dugu ama hizkuntzatzat katalana duen inor ez dagoela). Ikasle atzerritarren inguru sozialean gaztelaniak pisu handia du, eta nahiz eta eskolan dena katalanez egin, eskolatik kanpoko erlazio sozialean gaztelania ikasten dute.

Gironan bizi diren Europako komunitatetik harat etorritako etorkinen bizi baldintzen inguruan egindako ikerketa baten arabera (UPD, 2004), % 50ek ez dute katalana ulertzen, eta gaztelaniaren kasuan % 15ek. Ahozkoari dagokionez, % 78k diote badakiela gaztelaniaz hitz egiten, eta katalanari dagokionez % 18ra jaisten da kopurua. Gurasoek bezalaxe, haurrek ere kontaktu handia dute gaztelaniarekin eta azkar ikasten dute. Sarritan, katalana eskolako pertsona helduek baino ez dute erabiltzen.





## Familietako hizkuntzen erabiler

Hizkuntza bera duten ikasleak aisialdi egoeran elkartzen direnean agertzen dira familiako hizkuntzak. Bi egoeratan gertatzen da hori: jolas-orduan eta gelan eskolako ekintza bukatzen dutenean.

Jolas orduan etnia berekoak elkartu ohi dira. Testuinguru horretan euren hizkuntza erabiltzen dute, nahiz eta gaztelaniarekin, edota kasu batzuetan katalanarekin, nahastu.

### Hizkuntza eta identitatea

Haur horiek badakite testuinguru eleanitz batean bizi direla, eta nortasun iturri garrantzitsutzat hartzen dute euren hizkuntza. Bereziki arabiera hitz egiten dutenen kasuan gertatzen da hori.

### Eskolako hizkuntzaren ezagutza

Esan bezala, gela barruko harremanak katalanez garatzen dira ikasleen artean, baina “esaten eta egiten” dutena xeheetasunez aztertu ondoren, zera ikusten da: esaldi motzak eta sinpleak erabiltzen dituztela, termino deiktikoz beteak, hiztegi pobreakin eta “hemen eta orain” kokaturik. Ez da desberdintasunik ikusten eskolaurrean edota beranduago hasitako ikasleen artean.

### Hizkuntz gaitasunen testuingurua

Cummins-ek (1979), egoera informalen eta formalen arabera, hizkuntzaren erabileran inplikaturik dauden gaitasunen arteko aldea aipatzen du. Beste modu batera esanda, ez da gauza bera aurrez aurreko elkarrizketa batean hitz egitea zeinu ez linguistikoak ere erabiliz, edo solaskidea ikusten ez den egoera formal batean, non hizkuntzaren bidez soilik jaso daitekeen informazioa. Gaitasunak desberdinak dira bietan. Gauzak horrela, Cumminsek dio (1979) hizkuntzaren erabileran inplikaturik dauden gaitasunak ez daudela alderdi formalekin lotuta (morfologia, sintaxia, fonologia eta abar), baizik eta hizkuntzaren erabilera orokorrarekin. Horrela, edozeinek hizkuntza bat era-

## Zaila da bi alderdiak batzen dituzten hizkuntza praktikak aurkitzea: batetik, gelako hizkuntz aniztasuna, eta bestetik, ikasleen aniztasuna gelako hizkuntzaren ezagutzaren gainean.

biltzen duenean, bakoitzaren azpian gaitasun komun bat dagoela esan nahi du. Gaitasun hori ez da jaiotzez izaten eta ez da hegaztiei hegoak hazten zaizkien bezala hazten. Hizkuntza bat erabiltzen ikasteansortzen da. Beste modu batera esanda, hizkuntza bat ikastea ez da beste hizlariak edo entzuleak erabiltzen dituzten alderdi formalak txertatzea soilik, hizkuntza erabiltzen jakiteko gaitasunak garatzea ere bada. Hizkuntzarekin gauzak egiten jakitea da.

Hizkuntza testuinguru aniztatan erabiltzeko gaitasun batzuk eduki behar dira, eta horretarako, lehendik hizkuntza testuinguru jakinetan erabiltzen ikasi behar da. Gure haurrek arazo hori daukate: badakite eskolako hizkuntza testuinguru jakinetan erabiltzen, baina ez hortik at. Ez dute ikasi eskola jarduerak “eskolako hizkuntzaren bitartez” egiten, eta beren hizkuntza propioan ere ez, eskolan ez baita lantzen. Ondorioz, hizkuntzaren hainbat erabilera (irakurketa eta idazketarekin erlazionaturitakoak batik bat) mekanikoki ikasten dituzte eta ez dira gai “hemen eta orain” horretatik atera eta beste testuinguru batean aplikatzeko.

### Ondorioak

Aztertutako gelako ikasleak normalean eskolako hizkuntza erabiltzen du bere harreman sozialetan eta irakas-

leekin. Dena den, beren hizkuntza propioak eta gaztelaniak ere badute presentzia. Gaztelania ez da hispanoen hizkuntza soilik, ikasle guztiena baita; eta hizkuntza propioa etnia berekoekin hitz egiteko erabiltzen du.

Gehienek katalana jakin arren, horrek ez du esan nahi gai direnik eskolako ekintzetan erabiltzeko. Alderantziz, oso erabilera mugatua dute eta hizkuntz gaitasun gehiago behar den jardueretan porrot egiten dute, ez baitira gai eskolako hizkuntzaren esanahia eta zentzua ulertzeko. Ondorioz, jarduera asko mekanikoki egiten dituzte eta ikasketa balioa galtzen du, esanahia ikasi gabe errepikatu eta kopiatu baino ez baitute egiten.

Behin horretaz jabetuta, garrantzitsua da eztabaidatzea nola egin aurrera hezkuntza praktikan ikasle guztiek eskolako hizkuntzan dituzten gaitasunak gara ditzaten. Zentzu horretan, aipatu dugun programa, eta oro har, atzerriko ikasleak eskolatzeko erabiltzen diren programa guztiak hizkuntza murgiltze programak dira eta izango dira. Eta beraz, ez dago eskolak bere hizkuntzarentzat eskatzen dituen hizkuntz gaitasunak garatzeko aukerarik. Gure ustez, beste modu batera planteatu behar dira gauzak: ikaslearen ama hizkuntza eskolako ez den beste bat dela aintzat hartuta, heziketa praktikan egin behar diren jardueretan beharrezkoak diren laguntzek agertu behar dute ikasleak eskolako hizkuntza menpera dezan. Zentzu horretan, familiako hizkuntza kontuan hartzea bezain garrantzitsua da eskolako hizkuntza menperatzeko gaitasunak modu askotara lantzea.

Ikasleek beraien artean laguntzeko joera handirik ez dute. Zaila da talde lan eta elkarlan jarrerak edukitzea jarduerak indibidualak baldin badira, ez baten funtzionalak eta ezagutza areagotzeko ez badute balio. Horregatik, gela barruetan dagoen aniztasunari erantzuteko, egungo eskemari buelta eman behar zaio. Egun “norbaitek irakatsi egiten du” eta “norbaitek ikasi egiten du”, baina ez da elkarlanik egiten elkarrekin irakatsi eta ikasteko. •

# Jende asko eta interesatua gerturatu zen erakus- truke topaketara



Arrakastaz burutu zen **ikasle etorkinei eus-kara irakasteko material didaktiko eta proiektuen erakus-truke topaketa**. Bilbon izan zen otsailaren lehenbiziko egunean eta 70 lagun inguru bertaratu ziren. Ia 20 irakasle eta erakunde eraman zuten euren materiala besteek ikus zezaten, eta denetik ikus zitekeen: unitate didaktikoak, liburuak egokituta, fitxak, jokoak, irakurgaiak... Paperean nahiz ordenagailuz erabiltzeko moduko materiala zegoen. Jendea oso gustura agertu zen ikusitako materialarekin. Gauza berriak eta ideia berriak hartuta itzuli ziren etxera.

Mari Jose Eguskizak emandako hitzaldia ere interesgarritzat jo zuten, nahiz eta batzuek tailer modura egitea aproposagoa izango zatekeela esan.

Oso positibotzat jo zuten horrelako erakusketak antolatzea eta dinamika honi jarraipena eman behar zaiola uste dute gehienek. Materialak bildu eta artxibategi publiko bat egitea proposatu zuten batzuek.

Topaketak izan zuen harrera ikusirik, apirila bukaeran edo maiatzean beste bat egingo da. Kataluniako eta estatu espainiarreko irakasleak gonbidatuko dira, eurak egiten ari diren materiala ezagutzeko.



Bide eginean jarraitzen  
dugu zuen ekarpenekin  
eta parte-hartze  
handiagorekin aberastu  
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa  
duen edonoren parte-  
hartzea gustu handiz  
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo  
euskal hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.



# Berriak otsaila

# Argitalpenak



**Bat soziolinguistika aldizkaria,**  
Euskararen erabileraren  
bilakaera  
53. zenbakia  
SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA

Azken ikerketen arabera, euskararen erabilerak zer bilakaera izan duen aztertzen du, sakon, aldizkariaren ale honek. Egoeraren irakurketaz gain, etorkizunerantz begira jartzen gaitu, kezka baten aurrean: erabilera indartzeko zein diren egungo bideak eta geroa begirako gogoetak •



**Mundu globalizatua ulertzeko oinarriko kontzeptuak**  
Gizarte Ikerkuntza Tailerra  
GAIAK

XXI. mendearen hasiera honetan, ekonomia "globalizatuak" nora garatzen aztertzeko saiakera da hau. Transnazionalak, deslokalizazio produktiboaren eragina tokiko ekonomietan, ekonomia finantzieroaren eta ekonomia errealearen arteko desorekak, kanpo zorra, mugimendu anti-globalizatzailearen erronkak... eta gisako kontzeptuak azaltzen ditu •



**Txit oilo bitxia eta hartzak**  
Mercé Aránega  
IBAIZABAL

Irakurtzen hasi berri direnentzat egindako ipuina da, eta testuari laguntzeko koloretako marrazki handiak ditu, erakargarriagoa egiten dutenak. Txit oilo bitxiak, Txinatik iritsiak, gauzak beteriko maleta bat ekarri du handik. Era guztietako lagunak ezagutzen ditu bere ibilaldietan. Ipuin bakoitzean protagonistek jolas berri bat ikasten dute eta irakurleek oiloak galtzen dituen gauzak aurkitu behar dituzte •




**George L. Steer,**  
Gernikan izan zen kazetaria  
Edorta Jimenez  
TXALAPARTA

Biografia honek Steer kazetari auzartaren gertaerak azaltzen ditu, 1936ko gerrak zer Euskal Herri ekarri zuen arakatzeko bide ere emanaz. *Gernikako arbola* liburu ezagunaren egilea izan zen Steer, baita Agirre lehendakariak estimu handitan zuen kazetaria ere. Biografia 12 urtetik aurrerako gaztetxoei zuzenduta dago •



**Oneka**  
Arrate Egaña  
EREIN

*"Neskato lotsati eta mimatua zen Oneka. Gurasoek behar zuen guztia erosten zioten, baita behar ez zuena ere. Ez zioten inoiz ezetz esaten".* Jos-tailuen jabe izanagatik aspertuta bizi da neska pertxenta. Gurasoei izarrak eta ilargia ere erosi araziko dizkie. Baina lagunekin jolasten hasten den egunean aldatuko da dena. Ilustrazio oso berezi eta zainduak ditu ipuinak •



**Jokin Galtxagorri**  
J. M. Olaizola "Txiliku"  
ELKAR

Umorea, abentura, mitologiaren misterioa... nahasten dira liburu honetan. Mainerrek galtxagorri bat harrapatu du, oso langileak diren izaki magiko horietako bat: Jokin Galtxagorri. Baina... ez zaio oso galtxagorri langilea egokitu, ez baitzaio batere gustatzen lan egitea eta loti hutsa baita. Bien arteko komerkiak Mattinen marrazkiz lagundurik irakur daitezke •

# Reggio Emilia Italia

0-6 udal haur eskolak

**hik hasi**  
elkarrekin **jardunaldiak**

**Martxoak 11-12**

**I. M. Barriola eraikina**

**EHUKo Ibaetako Campusa**

**Donostia**

Izena  
emateko  
aukera

**Informazioa  
jasotzeko eta  
matrikulatzeko:**

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

**Berriro ere aretoa  
gainezka geratuko  
balitz, hik hasiko  
norbanako  
harpidedunek  
izango lukete  
lehentasuna.**

Izena emateko  
epea:  
**martxoak 4**

## Reggio Emiliako jardunaldiak martxoaren 11n eta 12an egingo dira

Otsailaren 28an eta 29an burutu beharreko jardunaldiak bertan behera geratu ziren hizlariak elurte arazoengatik Italiatik etortzerik izan ez zutelako. Ordurako, Miramar jauregiko areto nagusia txiki geratu zitzaigun, eta izena eman zuen jende dezente kanpoan geratu behar izan zuen. Hori kontuan hartuta, areto handiago batean egitea erabaki dugu. Hau da, **Donostiako EHUKo Ibaetako Campuseko I. M. Barriola eraikineko auditorioan.**

# Berriak

## Ipuin kontalariak Iurretako herri bibliotekan

### Haurrentzat

Otsailak 25

Iñaki Lasa

17:30ean 2 eta 3 urteko haur-  
rentzat

18:00etan 4 urtetik gorako haur-  
rentzat

### Helduentzat

Otsailak 25

Bea Egizabal eta Jone Apraiz "Sor-  
ginkeriak" ipuin musikala  
Ruben Martinez (Venezuela)

20:00etan

Lekua: Iurretako Herri Biblioteka

### Informazio gehiagorako:

biblioteka@iurreta.net

94 681 27 26

## "Ikastolak: kalitatea eta ekitatea" topaketak

### Otsailak 16, asteazkena

10:00etan: hasiera ekitaldia

Jarraian: "Kalitatea, ekitatea eta sistemen antolaketa: begirada bat ekonomia so-  
zialeko ikuspegitik", Roberto Rey, Madrilgo Hogar del Empleado Fundazioko zu-  
zendaria.

12:15ean: "Kalitatea eta ekitatea ikastoletan", hainbat ereduren aurkezpena  
ikastola batzuen partaidetzaren eskutik.

16:30ean: "Kalitatea, ekitatea eta kanpoko ebaluazioa", Josu Sierra, IVEI-ISEIko  
zuzendaria.

### Otsailak 17, osteguna

10:00etan: "Kalitatea, ekitatea eta curriculum", José Gimeno Sacristán, Didakti-  
ka eta Eskola Antolaketa arloko katedraduna Valentziako Unibertsitatean.

12:00etan: Mahai ingurua: "Kalitatea eta ekitatea: alderdi politikoen ikuspegia".  
Legebiltzarrean ordezkariak duten parlamentari talde guztien ordezkariak.

16:30ean: "Kalitatea, ekitatea eta ikastetxeen kudeaketa", Salvador Cardús, Bart-  
zelonako Unibertsitate Autonomoko Soziologia irakaslea.

18:30ean: amaiera.

Lekua: Bilboko Bizkaiko Batzar Nagusien egoitza (Hurtado Amezaga, 6).

## III. Mintegia Hezkuntza Etorkinekin. "Kulturarteko bizikidetza eskolan"

### Martxoak 11, ostirala

Donostian, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakulteko areto nagusian.

9:00-9:30: Dokumentazioaren banaketa.

9.30-11:00: "Kulturarteko Bizikidetza eskolan", Neli Zaitegi, Hezkuntza Saileko  
ikuskaria.

11:00-11:30: Atsedenaldia.

11:30-13:00: "Ikas Komunitateak, aniztasuna eta bizikidetza", Luisa M<sup>a</sup> Puertas, Bil-  
boko Berritzeguneko Aniztasuna eta Bizikidetza arloko arduraduna.

15:00-17:00: Komunikazioak, posterrak, esperientziak.

17:00-17:30 Atsedenaldia.

17:30-19:00: "Kulturarteko bizikidetza esperientzia Katalunian", Isabel Nadal,  
Generalitat Catalunya.

Izen-ematea: Graduondoko idazkaritza (lehen solairua. Tel: 943 018 241)

E-posta: cite@sc.ehu.es

Izen-emateak 10 euro balio du.

Antolatzailea: EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkunt-  
zaren Teoria eta Historia Saila.

Laguntzailea: SAREAN Elkarte.

Koordinatzailea: Felix Etxeberria.

## "Ahozko hizkuntzaren erabilera formalak, bere irakas- kuntza eta ebaluazioa"


### Martxoak 3 eta 4

Donostiako Berritzegunean, 16:00-21:00

Programa: sarrera, ahazko erabilera formalen irakaskuntza-ikaskuntza, zailtasu-  
nak, esku-hartze pedagogikoa, sekuentzia didaktikoak eta ebaluazioa, ondorioak.

Maile: Montserrat Vilá, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea.

Informazio gehiagorako: gaztelania@donosgune.net



# Euskal curriculumuma, izenez eta izanaz

“Herri jakintza nahi dugu eta jakintza herriarentzat nahi”. Badira urteak Telesforo Monzonek bere abesti batean Euskal Curriculumaren esanahi eta izaera definitu zituela. Euskal hezkuntzaren bidea ireki eta adierazi zigun ezaugarri zituena fintasan eta argitasunaz.

Aurkeztu berri den akordioarekin (Sortzen-Ikasbatuaz, Ikastolen Konfederazioa eta Udalbiltza) Euskal Curriculumuma gorpuzteko lehen pausoa eman da. Izan ere, osatzeko dago oraindik, eta egitasmoaren beharra ez dugu inondik inora zalantzan jartzen. Bereziki hiru arazorengatik: batetik, egun, Euskal Herriko luze-zabalean dauden curriculum desberdinek ez dutelako gure kulturaren transmisioa eta eraberritzea ziurtatzen; bestetik, eskolak euskaraz izatea eta hezkuntza euskalduna jasotzea ez direlako sinonimoak (euskaraz Txinako historia lasai asko irakats daiteke); eta, azkenik, hezkuntzaren normalkuntzaren hurrengo pausoa hezkuntzaren normalkuntza izan behar duelako.

Monzonen definizioa osatu eta aberastu bidean, Euskal Curriculumuma, hitz bitan, honela defini genezake: euskaldunok, Euskal Herriaz ez ezik, munduaz dugun ikuspegiaren irudikapena da. Euskal Herrirako prestatzen den kultur ibilbidearen hautaketa da, hau da, Euskal Herriko ikasleek, gizabanako eta gizartekide gisa, beraien garapen osoa Euskal Herrian eta mundu zabalean bizitzeko gaitasunak lor ditzaten (curriculumean Euskal Herriko edozein herritako ikasle batek derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatutakoan jakin beharreko gutxienezko kontzeptu eta gertakariak, egiten jakin beharreko prozedurak, eta bereganatu beharreko balioak finkatu beharko lirarteke).

Definizio horren arabera, Euskal Curriculumaren beharra eta eragina hezkuntza formalera mugatzen dugu soilik. Hala ere, hezkuntzaren xedea, 1999. urtean Unescoko Hezkuntzako Nazioarteko Batzordeak aurkeztutako txostenaren arabera, ondokoa da: hezkuntzaren xede nagusia gizakia bere dimentsio sozialean erabat garatzea da.

Bizi garen gizartean hezkuntzaren helburuak bideratzen dituen erakunde bakarra ez da eskola. Horregatik, hezkuntza ez-formalera ere zabaldu behar dugu egitasmoa. Eskolaz kanpoko ekintzek, komunikabideek, gizarte eragileek... ere esku-hartze zuzena dute kultura eta balio eramaile gisa, Euskal Herria eta, oro har, mundua irudikatzen informazioa igortzen baitigute. Ondorioz, Euskal Curriculumaren ikuspegi zabaldu eta hezkuntza formalaren eta hezkuntza ez-formalaren arteko loturaren garrantziaz jabetu beharrean gaude, osotasunaren bi dimentsio hauek norabide berean lan egin dezaten. Arriskua baitago eskolak eduki eta balio zehatz batzuk indartu, eta ikasleek eskolaz kanpo guztiz kontrako edukia eta balioak jasotzeko. Bidenabar, balio bakoitza definitu beharko genuke, neoliberalismoak kontzeptuaren esanahiak prostituitu ditu eta.

Izan ere, egun inposatuta ditugun hezkuntza sistemek igortzen dizkiguten balioak eredu neoliberalak ekoizitakoak dira. Hezkuntzaren funtzioa du tresnatzat eta ondokoak izan litezke xedeak: pertsonak giza-kapital bihurtzea, ezagutu ahaldu (informazioa erruz bildu eta informazioaren autobidean nabigatzea izango du), ekoiztea dirua irabaztea besterik ez da izango, elkarrekin bizitzea lehiatzea izango da...

Ohartu behar gara, hezkuntza kultur transmisiorako tresna izateaz gain,

pertsona kritikoagoak eta geure buruaren jabe izaten ere lagundu behar gaituela. Hezkuntzak emantzipatzailea izan behar du, eta ez menperatzailea. Hezkuntza sozialki eraikitako errealitate izaki, curriculumaren bidez errealitate horietaz jabetzea lortu behar da, modu horretan gizartea aldatzeko gaitasuna izango baitugu. Gizaki aske eta autonomoak hezi behar ditugu, ideia faltsu zein komunikazio modu distorsionatuetatik emantzipatutako pertsonak. Apple-k dion moduan, gure balio, ideia eta abar aztertzea eta kritikatzeko baita modu bakarra bizi dugun egoera gainditzeko. Ezagutzak gizakiaren eta gizataldearen garapena lortu behar du.

Modernitatearen aro honetara iritsi garenean, tren laster bat ageri zaigu (globalitarismoa): mundu zabalaren neurriak etxalde bihurtu nahi dituen tren lasterra. Tren geldiezina, baina norabidez aldatu beharrekoa. Herri gisa egituratu ezean, ekonomiaren globalitarismoak, industria kultural multinazionalak eta berregiturakera geopolitikoak irentsiko gaitu eredu kultural homogeneoaren tsunamian. Beste mundu bat posible delako lelotik beste mundu eredu batera igaro behar dugulako, eta Euskal Curriculumak ere beste mundu eredu hori sortzeko ekarpena izan behar duelako.

Jada orain dela hogeita hamar bat urte abertzaletasunaren eredu den beragararrak adierazi zigun bidetik: “Mundu berri bat nahi (behar) dugu, herri bakoitzak beretik emanez”.

Ekin diezaiozun bada Euskal Curriculumari, izenez eta izanaz.

Ruben Iglesias San Sebastian  
*Euskal Herriak Bere Eskola-ko kidea*

# Muga guztien gainera ...euskaraz!

## Xiberutarren habia Sohütako Eperra ikastola

Zuberoako 20 herri txikitik etortzen dira haurrak Sohütako ikastolara. Bada egunero-egunero 36 km egiten dituenik ere ikastolara etortzeko. Ez baita txikia ikastola honen babilica: xibereraz mintzatzeko tokia da, euskalki horren iraupena segurtatzeko gune bakarretakoa. Haur ia denek entzun dituzte euren aitatxi-amatxiak euskaraz. Aita-ama askok galdu dute ondare hori. Orain seme-alabei itzuli nahi diete galdu zutena.

Eperra ikastolak 72 ikasle ditu, 2 urtetik 11 urtera bitartekoak, ama eskolan eta Lehen Mailan daudenak. Irakasleak, berriz, lau dira egun osoz aritzen direnak, eta beste bat dago egun erdikoa.

Odette Mohoradek erakutsi digu adreilu bakoitzaren zergatia. Odettek 20 urte daramatza ikastolan lanean, eta egun 4. eta 5. mailetako irakaslea eta bertako zuzendaria da.

Zuberoako lehen ikastola 1972an sortu zen, Maulen: hamar haur ziren, ikasgelarik gabe, baldintzarik txarretan, euskaraz ikasten. Geroztik, lekurik eskasenetan harat-honat mugitu beharreko hamarkadak joan dira, herriko etxeei teilatu duin bat eskatzen emandako hamarkadak, harik eta 1992an gurasoek erabaki zuten arte euren lur zatia hartzea, behingoz euren ikastola eraikitzeko. Hala heldu ziren Sohütara, eta jauregi baten ondoko zalditegia eskuratu zuten, zaharra bezain eroria. 1996-97 ikasturtea zen. Euskal Herri osotik etorri zen jendea auzolanean ikastola altxatzeko. Handik eta hemendik eskolako materialez betetako kaxak etortzen ziren. Indarrez, ilusioz eta elkartzunez betetako urtetzat jotzen du hura

Odettek, ikastolako egungo zuzendariak.

Geroztik gauzak zenbat hobetu diren Odettek esan dezake ongi: *“Gaur kanpoan ezagutza hobea dugu, normaltzat hartuak gara orain. Lehen ez gintuzten eskolatzat hartzen. Gainera, gaur Mauleko herriko etxeak zerbait antolatzen badu, guri ere deitzen digute; lehen ahantziak ginen”*. Zerbitzuetan ere asko aurreratu du ikastolak: lehen, gurasoek kilometro pila egin behar zituzten egunero Zuberoako punta bakoitzetik euren haurra ikastolaraino eramateko. Gaur, garraio zerbitzua dute, baita kantina ere. Odetten hitzetan, garrantzi berezia duen beste zerbitzua haurrei eskolako lanak egiten laguntzeko jarri duten estudioa da. Eskola bu-







**Odette Mohorade:**  
**“Enetako oso inportantea da ahozkoaren lantzea, baina ez soilik euskararen xuxen erabiltzeko, baita ere argudioak hatse-maiteko, jendaurrean hitz egiten ikasteko...”**

katzean, pertsona bat izaten da bertan ordubetez, haurrei lanak egiten laguntzeko. Guraso erdaldunek biziki eskertzen duten zerbitzua da, sarri larritu egiten baitira seme-alabari etxeko lanetan eurek ezin diotela lagundu sentitzen dutenean.

### Gurasoen lana

Zuberoako gizartearen zati handienak frantses hutseko eskoletara bidaltzen ditu haurrak. Ikastolaren berri zabaltea eta jendea erakartzea ere bada zaindu beharreko kontua. Guraso berriei zuzendutako informazio kanpainen bidez, ate-zabal egunak antolatuz edota irratiz saiatzin dira jendearengana iristen. Egun 72 haur dabilta ikastolan, eta Odettek baieztatzen digunez, *“72 haur, oaiko egunean Xiberuan, ez da batere gaizki; ez dut uste gorago joango denik”*.

Zuberoan demografiak behera egin du nabarmen. Ekonomia krisia dela-eta, kostalderako edo Pauerako joera hartu du biztanleriak. Bertan bizi direnetatik asko laborariak dira, edota zerbitzuetan jarduten dutenak, baina lantegi handiak jada itxita daude. Odetten iritiz, *“halere, jendeak nahi du Zuberoan bizi, eta zuberotarrek badugu gihauk gure entrepresa ttipiak muntatzeko nahi hori”*. Ekonomia krisia ere bada oztopo zenbait familiarentzat ikastola hautatzeko orduan. *“Haurra ikastolan sartzen duzularik, egia da hilabetero behar duzula diru bat jarri, eta edozein irteera berezi egiteko ere ez dugu laguntzarik eta azkenean gurasoak behar du ordaindu”*. Bestelako eskola publikoekin alderatuta, garestia

da haurra ikastolara eramatea, Hezkuntza Ministerioak ikastolako irakasleak soilik ordaintzen baititu; hortik aurrerako zerbitzu guztiek patrikan zuloa egiten dute. Eta hor hasten da lan militantea: dirua biltzeko denetik asmatu behar gurasotaldeak. *“Azkenean inplikazio handia eskatzen zaie gurasoei. Eta beharrezkoa da, gainera; hau beste gisa bateko eskola baita, eskola bizia, hurbilago egiten gaituena gizartetik. Gurasoak hemengela barruraino sartzen dira”*. Beraz, gurasoei beharrak eragiten dien parte-hartze hori bera, azkenean ikastola erakargarri egiten duena ere bada.

### Ikastolan, xibereraz eta hika

Ikastolako gurasoetan erdia da euskal hiztuna (guraso biak edo bietan bat kontuan izanda). Haur gehienentzat, beraz, ikastola da euskara ikasi eta euskaraz mintzatzeko toki ia bakarra. Euskalkiari dagokionez, berriz, gutxi, baina oraindik entzuten omen da xiberera, ia aitatxi-amatxi guztiek baitakite. Xibereraz ikastea da gurasoek agertzen duten nahia. Eperra ikastolan, irakasle guztiak dira xiberotarrak eta euren euskalkian hitz egiten diete haurrei. Irakuridazketan ere, xibereraz hasten dira, eta behin 8 urtetik aurrera ekiten diote batua lantzeari.

Euskalkian aritzerakoan, material falta da euren oztopo nagusia. Euskara batuan daude liburu guztiak, eta irakasleek orduak eman behar izaten dituzte testuak xibereraz idazten eta liburuko orrietan itsasten. Material guztia eurek sortu behar dute, zubereraz orain arte

idatzi izan dena (pastoralak, testu klasikoak...) ez baita haurrekin lantzeko egokia.

Bestetik, hika jarduten dute eskolan, Zuberoan bizi-bizirik baita mutilei hika egiteko ohitura. Noka aritzekoa galdu egin da, ordea, herri gutxi batzuetan salbu (Barkoxen, Santa Grazin... entzuten omen da oraindik noka, baina adinekoen artean). Hala, haurrek irakasleari zuka egiten diote, nesken artean ere zuka jarduten dute, eta mutilei hika egiten zaie beti.





Ahozketasuna lantzeari garrantzia berezia ematen diote, eta horretan ezinbestekoa da metodologiak haurri hitza ematea, eskola irakaslearen hitz-jarioan oinarritu beharrean. Odettek argi du: *“enetako oso inportantea da ahozkoaren lantzea, baina ez soilik euskararen xuxen erabiltzeko, baita ere argudioak atzemateko, justifikatzeko, jendaurrean hitz egiten ikasteko... haurra isilik badugu, ez dakigu azkenean euskara dakien edo ez”*. Haur talde handiegirik ez izatea abantaila da ikasleei hitza emateko orduan.

### Aisialdian euskarazko eskaintza falta

Eskolatik irten eta kirol ekintzak, antzerki eskolak, telebista, bideojoko zein filmak frantsesez soilik dituzte. Ikasgelaz kanpo ez da euskararik entzuten. *“Penagarria da-gaineratzen du Odettek-, zeren eskola ez baita aski”*. Gurasoei maskarada, pastoral edota euskaraz diren bestelako ikuskizunetara haurrak eramán ditzaten aholkatzen diete, haurrek ikus dezaten euskara hizkuntza bizia dela, eta ez eskolako lau horma artean gelditzen dena.

Aisialdian euskarazko eskaintzarik ez dela-eta, ikastolak ekintza bereziak antolatzen ditu euskara kalera ateratzeko. Hala, inauterietan desfilea egiten dute Sohütan barna. Olentzeroa ere antolatzen du ikastolak Mauleko karrike-


tan. Orain bi urte, gainera, Zuberoako dantza eskolei zabaldu zieten atea, eta egun jende asko biltzen da festa horretan. Kantuzale Elkarteak antolatzen duen kantu txapelketan ere beti hartzen dute parte, bai talde osoan, bai binaka eta tarteka baita banaka ere. Urte osoan lantzen dutena da kantua, tradizioko kantuen oinarri bat izateari garrantzia handia ematen baitiote. Bertso-laritza ere lantzen dute ikastolan, eta eskolaz kanpoko ordutarako ere, bertso eskola sortu berri dute. Bertan biltzen dira bat-batean gehiago trebatu nahi duten haurrak, bai egun ikastolako ikasle direnak eta baita ikasle ohiak ere.

### Etorkizunari begira

Bi ikastola daude egun Zuberoan. Sohütako Eperra ikastola da bata, eta Aloseko Basabürü ama eskola bestea, 1978an sortu zena. Basabürüren ibilbidea ere ez da xamurra izan, *“beti batera eta bestera, beti ibili da egoera txarretan, a zer bizia izan duen gaixoak!”* penatzen da Odette. Urtezahar gauean bi nerabek txikizio galantak egin zituzten, baina idatzitako mezuek eta nazi ikurrek eragin zuten min gehien. Odettek kontatu digunez, ezzuten halakorik inolaz ere espero, ez baitute ikastolaren aurkako girorik sumatu izan. Harrituta omen daude, eta 14 urteko bimetiko zirela jakiteak zer pentsatua ematen omen du.

**Aisialdiko ekintzatan euskarazko eskaintzarik ez dago. Hori omen da gabeziarik handienetakoa. Ikastola hutsune hori betetzen saiatzen da, ahal duen heinean.**

Eperra ikastolan inoiz baino ikasle gehiago daude gaur. Horietatik gehienak, 12 urte betetzean Donaixtiko (Nafarroa Beherea) kolegioan jarraitzen dituzten ikasketak, euskara hutsean. Hala ere, egun pentsaezina da Bigarren Mailako ikasketak horiek Zuberoako ikastolan bertan eskaini ahal izatea, taldea txikiegia delako. Etorkizunaz galdetuta, *“baikor naiz-dio Odettek-, baina batzuetan ‘zer ari gara?’ pentsatzen dut, ‘zertarako balio du egiten dugunak, gero kanpoko eskaintza ia den-dena frantsesez bada?’*. Telebistan, kalean, kirol mailan... dena dago aurka. *Ezetzor izan gabe, baina gogorra da”*. •





Otzara

# Euskal Material Didaktikoaren I. Topaketak

## Hezkuntza Premia Bereziak

2005eko martxoaren 4 eta 5,  
Eibarren UEUren Ikastetxe Nagusian  
(Markeskoa Jauregia)



Udako Euskal Unibertsitatea

[www.ueu.org](http://www.ueu.org)

Laguntzailea:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

# eurodimentsioa



# hezkontzan



www.hezkuntz.euskaltzainak.eus

urrerriaren herria

S J

ITZ



G I

V SC

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE  
ET IKERKETAK

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO